

Goienkaria

ASTELEHENEKO

2007ko urriaren 1a > Astelehena > III. urtea > 160. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Mendeak pasako dira baina noizbait gizakia espazioan biziko da"

Luis Alfonso Gamez
Kazetaria > 06



G2a

San Migel jaiak
Aretxabaletan
eta Oñatin > 23-24

BERGARA

Euskal Herriak Bere Eskola
ekimenak batzarra egin zuen > 04

GIZARTEA

Oñatiko udaletxean Espainiako
bandera jartzeari, ezetz > 12

KIROLA

Aretxabaletak bakarrik irabazi du
asteburuan, etxean > 16

GIZARTEA > AHTREN GAINEKO INKESTA ARAMAION

Aramaioarren erdiak eman du AHTren gaineko iritzia, %54ak

EMAITZEK EZETZ Botoa eman duten aramaioarrek (673) argi utzi dute ez dutela trenik gura; %97ak eman du ezetza

NORMALTASUNA Aramaioko alkateak azpimarratu du normaltasunez egin dutela inkesta, arazo barik

INFORMAZIOA JASO Azpimarratu dute ez dutela kontsultarik egin, iritzia batzeko inkesta bat izan dela > 14

AUTOAK > GORLAKO IGOERA

Vilariñok peronea hautsi zuen

Kontrario barik, Aitor Zabaleta erraz nagusitu zen Gorkako igoeran > 15

GIZARTEA > KONZERTUA

Iturri gorri ekimenaren alde

Zapatuan egin zuten hezur muineko gaixotasuna dutenei laguntzeko kontzertua. 250 bat lagunek ikusi zuten Gorkobalu Abesbatzak, Arrasate Musikaleko Big Bandek eta Belcebluesek emandako kontzertua. Iturri gorri ekimenekoek eskerrak eman gura izan dizkie kontzertuan parte hartu zutenei. > 05

ARGAZKIAK > LEHIAKETA

Aukeratu ditugu irabazleak

Udako argazki lehiaketako sarituak, barruan > 25

Ainhoa Agirreazaldegia "gustura" hirugarren sailkatuta

Atzo iluntzean egin zuten Arrasateko Kulturateko areto nagusian –txiki geratu zen aretoa, eta bozgorailuak jarri zituzten kanpoan geratu zirenek saioa jarraitu ahal izateko– Gipuzkoako Bertso txapelketako kanporaketetako bat.

Elgetako Ainhoa Agirreazaldegia zen ibarreko ordezkari bakarra, eta lansaio txukuna eginda hirugarren sailkatu zen. Kanporaketako onena, baina, Aitor Sarriegi izan zen, 283 puntu eskuratuta > 24



BERTSOTAN Agirreazaldegia, atzoko saioko une batean.

JOSETXO ARANZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05

Elkarrizketa > 06

Iritzia > 07-08

Herriak > 09-14

Kirola > 15-20

Kultura > 21-22

Sailkatuak > 29

Berri-zakua > 30-31

Azkena > 32

GARRAIOAK > TXARTEL BATERATUA

Txartel bateratua gaurtik hasita dago erabilgarri

Gipuzkoako beste lurralde batzuetan baino lau hilabete gehiago itxaron behar izanda ere, dagoeneko iritsi da gurera txartel bateratua. Hala, gaurtik hasita Lurraldebus elkartean sartuta dauden eta Diputazioaren baimenak dituzten Gipuzkoako garraiobideetan erabili ahal izango da txartel hori.

Txartel hori eskuratzeko inprimaki bat bete behar da –inprimakiok joan den asteaz geroztik daude ibarreko hainbat kiosko eta liburu dendetan–. Argazki bat eta lau euro ordainduta, saltokiak arduratuko dira erabiltzailearen eskaria bidertzeaz. Bost egun itxaron behar dira txartela jasotzeko > 04

SUPER AMARA

DENAK GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkalekua

OSASUNA > SENDABELARRAK

Gaixotasunak sendatzeko botika naturalak denon eskura

BELAR DENDAK Mendian aurki daitezkeen arren askok nahiago du erosotasunez belarrak dendan erostea

INFUSIOAK Sendabelarren erabilerarik ohikoena infusioan hartzea da, baina egin daitezke ukenduak, kataplastak...

ETORKIZUNA Adituen ustez elkarren osagarri izango dira medikuntza naturala eta ofiziala etorkizunean

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Udazkenean sartu gara eta maiz gorputzeko defentsak behera egin ohi dute urte sasoi honetan. Hortaz, gaixotasun gehiago izaten ditugu. Asko dira gaitzei aurre egiteko moduak: berez sendatzen uztea; sendagai kimikoak hartzea eta badira sendabelarren propietateak aprobetxatzen dituztenak.

Belaunaldiz belaunaldi mendeetan barrena familietan pasa izan da sendabelarren gaineko ezagutza. Erabilera askok gaur arte iraun dute gainera baina pixkanaka hauek eskuratzeko modua aldatu egin da.

MENDITIK DENDARA

Baserri inguruetan eta mendian aurki ditzakegu sendabelarrak, baina askok, erosotasunez, nahiago dute bila joan ordez kaleko belar dendetan erostea. "Jendeak agian jakin badaki zein belar den ona zertarako, baina mendian jaso beharrean belar dendara etortzen dira zuzenean, hemen lehortuta, poltsetan prestatuta erosten dutelako. Bila joaten direnak gutxi batzuk dira, jende nagusia, baserri girokoak. Hala ere, badira batzuk etorri izan zaizkidanak landarea hartuta galdetzeraz zein landare den edo zertarako den egokia", azaldu digu Aitor belar dendako Aitor Ruizek.

Egun prentsa zein Internet bitartez informazio asko zabalitzen da baita gai honen inguruan ere. Hortaz, jendea jakitun joaten da belar zehatzen bila. "Guk emandako aholkuek beharbada ziurtasuna eta lasaitasuna ematen diete", diosku Aitor Ruizek.

Sendabelar bila dendara zein jende joaten den galdetuta esan digu askotariko jendeak kontsumitzen dituela, baina erosleak emakumeak direla batik bat. Aitor Ruizen esanetan, "jende gazte asko lasaitzeko edo digestioa errazteko infusioetarako belar bila etortzen da: erregaliza, anisa eta menta nahastuta egokiak dira hotz sasoirako. Gai nontzean, 35 eta 50 urte arteko jendea da ohiko kontsumitzailea".

KATARROA ETA GOGO-ALDARTEA

Urte sasoi honetan, urtaro berri-rako sarreran eta negu giroa geru sartzen dugunean jendeak immunologia-sistema hobetzeko eta defentsak altxatzeko sendabelarrak nahi dituela azaldu digu Aitor Ruizek: "Hotz sasoiaren sartzen garenean askok *echinacea* eskatzen dute. Landare bat da immunologia-sistema altxatzen



AURREZ GERTATUTA Aitor Ruizek Arrasaten duen belar dendan lehortuta eta poltsetan saltzen ditu belarrak; nahasteak ere aurki ditzakegu.

IRATI AGIRREAZALDEGI

duena. Bestalde, katarroarendako onak diren sendabelarren bila ere etortzen dira. Espektoratze-ko edo eztarrirako: ezkaia, eukalipto, pinua, zain-belarra... infusioetan hartzen dira batez ere, baina xarabeetan ere har daitezke. Horieta landareen osagarri erlauntzetik eratorritako produktuak ere erabiltzen dira, propolia, esaterako. Defentsak altxatzen ditu eta eztarriko azukrearendako ere egokia da. Opor ostean, lanera itzultzeak, argi ordu gutxiago izateak... umorea aldatzen digu. Hortaz, gogo-aldarte motela apur bat pizteko San Joan lorea da egokia: antsietate-ari eta urduritasunari aurre egiten lagunduko digu".

Udan hartutako kiloak kentzeko eta barrena garbitzeko erremedioen bila ere joaten da jendea Aitor Ruizen esanetan: "azeri-buztana, urkia, orburua... metabolismoa bizkortzeko landareak nahi ditu jendeak. Horretarako fucus-a egokia da eta te berdea ere modako belarra da eta barrua garbitzeko egokia".

"Intsusarekin, berbena belarrarekin eta argizariarekin ukendua egiten du jende askok eta gurean ezaguna da"

TE BERDEA

Aitor Ruizek dietetika eta nutrizio ikasketak ditu eta te berdearen harira esan digu uraren ostean, munduan gehien kontsumitzen den edaria dela: "askok uste duen arren kolazko freskagarriak edo kafea gehiago edaten direla, txinatarrek te asko edaten dute eta horregatik da beharbada. Gainera, te berdeak edertasunerako, minbiziaren aurkako zein beste-lako propietateak ditu".

Sendabelarren erabilera ohikoena beharbada infusio modura hartzeko izaten da. Batzuek belarrak erosi edo mendian hartu eta eurek egiten dituzte nahasteak, baina gehienek, erosoagoa delako prestatutako poltsatxoak hartzen dituzte; baita xarabeak edo konprimituak ere. "Sendabelarrak hartzen direnean askotan aberastutako ura dela esan genezake. Urduria denak erlaxatzeko belarrekin aberastuko du ura. Izan ere, ura beti du beharrezko gure gorputzak. Kafea, adibidez, hartzen dugu esna egonazten digulako, menta poleoa lasaitzen

gaituelako... Bakoitzak bere gorputzarendako, gogo-aldartearendako egokienak direnak aukeratzeko", dio Aitor Ruizek.

UKENDUAK

Kosmetiko naturalak edo ukenduak egiteko ere asko erabiltzen dira sendabelarrak. "Intsusa, berbena belarra eta argizariarekin egiten dute batzuek ukendua eta inguru honetan horrelakoak eza-gunak dira. Azaleko gaitzak (ekzema, dermatitisa...) sendatzeko ona dela badaki jendeak eta baserri inguruan belarrak aurkitu ezean belar dendan erosten dituzte", esan digu Aitor Ruizek.

Aitor Ruizi sendabelarrena moda kontua ote den galdetuta ezetz erantzun digu eta gainera uste du etorkizunean ere medikuntza ofiziala eta naturala elkarren osagarri izango direla. "Gero eta gehiago sendabide tradizionalen aldeko apustua egiten dutenak eta hainbat herrialdetan aukera ematen dute sendagai zein sendagileetan bata ala bestea hautatzeko".

Jone Bergaretxe > Sendabelarretan jakituna

"Sandabelarrak ezagutu eta neurrian hartu behar dira"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Arrasateko Uribarri auzoko Gorostiza baserrian bizi da Jone Bergaretxe. Amarengandik jaso zuen sendabelarren gaineko jakintza eta hark ere aurrekoei ikusita ikasi omen zuen. Baserri inguruetan gutxi ala gehiago sendabelarrak ia denek erabiltzen dituztela esan digu. Izan ere, mendiko edozein txokotan aurki daitezke sendabelarrak baldin eta ezagutzuz gero.

Zenbateraino izan daiteke osasunarendako lagungarria sendabelarrak erabiltzea?

Farmazian zein belar dendetan aurki ditzakegun botika asko sendabelarrekin egindakoak dira; eta eragina motelagoa izan daitekeen arren lagungarriak badira osasunerako. Sendabelar batzuekin argi ikusten da. Esaterako, tripetatik larri dabilenean jende askok hartzen du manzanilla.

Natura aurrean izan dugun arren orain badirudi modan dagoela osasunerako bitarteko naturalak erabiltzea.

Baserritarrek beti izan du aldamean intsusa, adibidez, erre trapuak egiteko; beste belar batzuek ere etxe tik gertu zituzten botikak egiteko. Orain baserritik kalera ere zabaldu da eta egia da modan dagoela erabiltzea. Botika kimiko asko sartu gabe sendabelarrekin konpon balitezke gauzak ni neu erabiltzearen aldekoa naiz, baina mirariak egiten dituenik ez dugu pentsatu behar.

Zu sendabelarrak erabili zalea zara?

Ni bai, etxe inguruan hartutakoan erabiltzen ditut, besteak beste. Aingeru lorearekin pomadak egiten ditut amaren errezetari kasu eginez eta azalerako ona da; digestiorako amabirjina belarra, manzanilla edo tea erabiltzen ditut. Orain gehienek kanpotik ekarritako tea hartzen dute baina baserri inguruetan beti egon izan da arroakako tea.

Gure inguruak oparoak dira sendabelarretan?

Gure baserri inguruan sendabelar asko dago eta gehien erabiltzen direnak, oinarritzkoenak, ezagutzen ditugu inguru hartakook bai behintzat. Erabiltzeko ongi ezagutu behar dira gainera. Esaterako, txiza infektorako sendabelarrak hartzen dituenak badaki zer behar duen, behar bada beste batzuk ez ditu ezagutuko, baina behar duena bai.

Badago arriskurik sendabelarrak gaizki erabiliz gero?

Bakoitza bere unean eta neurrian hartu behar da, noski. Egunean bi edo hiru infusio har daitezke eta ez da komeni aste bete baino gehiago hartzen egotea, nire aurrekoek behintzat hala zioten. Nik neuk manzanilla egunero hartzen dut baina beste belar batzuek astebetean edo hamar egunetan hartu ostean atsedean hartu behar da. Gorputza ohitu ere egiten da horretara, antibiotikoekin ere gauza bera gertatzen da.



GOIENKARIA

Sendabelarrak gertatzeko moduak

Asko dira sendabelarrak gertatzeko moduak; hona hemen lau. Baina ukenduak, xarabeak, olioak, esentziak... ere egin daitezke.

> INFUSIOAK

Irakiten ari den ura lehortuta dauden belarren gainera bota behar da eta gero beratzen utzi. Infusioa estaltzea komeni da printzipio sendagarriak ez lurruntzeko. Hori egin ondoren, iragaztea baino ez da geratzen.

> EGOSI

Enborretan dauden printzipioak eskuratzea zaila denean edo soluziora pasatzeko denbora luzez beroa behar denean sustraiak, azalak, fruituak, eta hosto gogorra uretan irakiten jartzen dira eta hoztu ostean iragazi baino lehen soluzioa dekantatu.

> BERATU

Landareen substantzia aktiboak ur hotzetan disolba daitezkeenean sendabelarra ur hotzetan utzi eta printzipio guztiak soluzioan geratzen dira. Hostoak eta loreak seitek 12 ordu edukitzen dira, sustraiak eta azalak 24 orduz.

> ZUKUA ERAUZI

Ur proportzio altuko landare fresko bat ur pixka batekin mortairuan jarriz edo zuku makina erabiliz belarren gatz mineralak eta bitaminak eskuratuko dira.

NOLAKO GAITZA HALAKO BELARRA




Astalarrosa hazia

Garai batean, laranjarik ez zegoenean, astalarrosa hazia (*escaramujo* edo *tapaculos*) erabili ohi zen infusioa egiteko eta egun ere erabiltzen da. Katarroarendako da egokia belar hori C bitaminan aberatsa delako. Katarroarekin gaudenean lurrunik egin nahi badira, ordea, malba eta eukalipto hostoak botatzen dira uretara eta irakiten ipini. Eztarria edo bular aldea hartuta izanez gero aproposa da arnas bideak zabaltzeko. Beherakoaren aurka ere erabil daiteke.



Azeri buztana

Equisetum edo *cola de caballo* ere deitzen zaio. Infusio modura hartuz gero txiza infekzioetarako egokia izan daiteke. Gaitz hori bera sendatzeko gereziaren buztana lehortu eta azeri buztanarekin nahastuta hartzea izan daiteke beste aukera bat. Azeri buztanaren propietateak, ordea, beste gaitz askoren sendagarri ere badira: erreuma, hezurretako gaitzak, gehiegizko odol jarioak, zaia agertzea edo ilea jaustea... Horiek guztietarako azeri buztan infusioa har daiteke.



Pixa belarra

Besikulako edo giltzurruneko harriak izanez gero azeri buztana erabil daitekeen arren, fraideren batek urrutiko lurraldeetatik gurera ekarri eta hemen aurki dezakegun pixa belarra har daiteke. Erabilera horregatik *rompepiedras* izena ere hartzen du. Uretan irakin eta hiru egunetan hartzea egokia da harri horiek botatzeko. Hanturen edo eskorbutuaren aurka ere erabil daiteke. Bestalde, arto bizarrak ere badu giltzurrunetako gaitzak sendatzeko ahalmena.



Intsusa

Erredurak sendatzeko erabiltzen da intsusa adarren azalarekin egindako ukendua eta erre trapuak egiteko ere erabil daiteke intsusa. Horretarako, zartagin batean olio eta intsusa ipintzen dira eta ondoren, gaza bertan busti eta erreduraren gainean ipini. Beste erabilera bat ere eman ohi zaio intsusari. Begiak nekatuta izanez gero, begiak itxita daudela gaza batekin igurtzi daiteke infusioa konjuntibitisak, glaukomak zein kataratek eragindako minak arintzeko.



Ebaki belarra

Izenak berak erakusten duen moduan ebaki edo zauri txiki eta ertainak sendatzeko balio du. Hostoari gainaldeko azal fina kentzen zaio eta ebakiaren gainean ipintzen da trapu batekin lotuta. Ahal dela egunero aldatu behar da zauria sendatu artean. Diabetesa dutenei, esaterako, asko kostatzen zaie zauriak sendatzea eta ixtea eta horiendako irtenbide egokia da ebaki belarra. Kailuen kontra eta zauriak orbaintzeko ere aproposa da.



Berbena belarra

Sinusitisa sendatzeko kataplasma bat egiten da bi arrautza zuringo, olio pixka bat eta berbena belarra erabiliz. Hortik ateratako tortilla gaza baten gainean sudurraren eta masailen gainaldean ipiniko genuke hamar minutuz. Espasmoen aurka, sukarra jaisteko edo toniko gisa ere erabili ohi da. Neurrian hartuz gero erlaxatzeko ere balio dezake baina behar baino gehiago hartzen bada goragalea ere eragin dezake.



Asuna

Anemiaren eta erreumaren aurka hartzen da asunekin egindako infusioa. Asunekin egindako igurtziak artrosiaren aurka edo tortikolia bezalako giharretako minen aurka ere erabiltzen dira. Lehen baserrietan esaten zen asunekin bizkarrean joz gero, berotasunarekin sukarra jaitsi egiten zela. Odola garbitzeko, mehetzeko eta zirkulazio arazoendako ere aproposa da. Ukituz gero azkura ematen duen arren uretan irakin ostean, ez da gauza bera gertatzen.



Zain belarra

Ahoa garbitzeko aproposa. Aho barruan sortzen diren zauri txikiak sendatzen ditu. Horretarako mastekatu egin daiteke belarra bera edo infusioa irakuzi zein gargarak egin. Idorrieriari aurre egiteko ere egokia izan daiteke, baina nahikoa ur erabili ezean haziek hesteetako buxadura eragin dezakete. Erabilgarria da era berean eztula, afonia, marranta, eztarriko mina edo mukiak ditugunerako; azken finean arnas bideak zabaltzeko.

ZERBITZUAK > GARRAIOBIDEAK

Gaurtik hasita erabil daiteke txartel bateratua gurean

Txartel bateratua eskuratzeko inprimaki bat bete behar da, eta lau euro ordaindu

Ibarreko zenbait estanko eta liburu dendatan daude inprimakiak eskura

XABIER URTZELAI > BERGARA

Txartel bateratua berandu dator gurera, Gipuzkoako Foru Aldundiak ekainaren 4an jarri zuen eta abian hainbat garraio bide erabiltzeko txartel bateratua. Baina, ia lau hilabete geroago bada ere, hemen da txartel bateratua, eta gaurtik hasita, Lurraldebus elkartearen sartuta dauden eta Diputazioaren baimenak dituzten Gipuzkoako garraio bideetan erabili ahal izango da txartel hori, baita ibarrean ere.

NON ESKURA DAITEKE TXARTELA?

Gaur hasiko dira ibarreko Lurraldebusen zerbitzuak txartel bateratuarekin lanean, baina joan

den astetik egin daitezke txartel hori eskuratzeko tramiteak gurean. Horretarako, inprimaki bat bete behar da, eta ibarreko zenbait estanko, liburu-denda eta kioskotan daude inprimaki horiek eskura.

Arrasaten, Martxas eta Portaloiko kioskoetan, Garai estankotan eta Ttukun liburu dendan; Bergaran, Isabel kioskoan eta Ikasbi liburu dendan; Oñatin, Hirukar liburu dendan eta Altuna estankotan; Aretxabaletan, Ibarra estankotan eta Alfredoren Kioskoa dendan; Eskoriatzan, Adela liburu dendan, eta azkenik, Antzuolan, Altzarte okindegian eskura daiteke inprimakia.



BIRRITAN Bidaiaren hasieran eta amaieran pasa behar da makinatik txartela. ARTXIBOA

EMAN BEHARREKO PAUSOAK

Aurreratu moduan, txartel bateratua egiteko inprimaki bat bete behar da. Eta horrekin batera, txartela eskuratu gura duenak inprimakia betetzearekin batera argazki bat eraman behar du eta lau euro ordaindu. Inprimakia bete duen saltokiak bidertuko du erabiltzailearen eskara, eta hantxe bertan jaso ahal izango du txartela, bost egun geroago. Zerbitzu berri horri esker, besteak beste, erabiltzaileak

txartelarekin ordaindu ahal izango du autobusa. Eta poltsikoko telefonoekin moduan, kutxazainen bidez kargatu ahal izango du txarteleko saldoa.

Autobusean egindako ibilbidea kobratzerako orduan, berriz, erabiltzaileak autobusera sartzekoan eta irteterakoan pasa beharko du txartela makinatik. Horrela, makinak jakingo du erabiltzaileak zein ibilbide egin duen, eta horri dagokion prezioa kobratu dio.

HEZKUNTZA > EUSKAL HERRIAK BERE ESKOLA

Bergaran aurkeztu zituzten ikasturterako erronkak

Euskal Herriak Bere Eskola ekimenak zapatuan egin zuen batzarra Bergaran, eta ikasturte berrian jarraituko duten bidea azaldu zuten

XABIER URTZELAI > BERGARA

Euskal Herriak Bere Eskola ekimenak Bergara aukeratu zuen zapatuan ikasturte berrian izango dituzten helburuak azaltzeko. Eta, Bergara aukeratu izana ez da kasualitatea: "Azken hilabeteotan hezkuntza mailako arazoa sortu da Bergaran, herri giroa nahastu eta San Martin eta Aranzadi Ikastola parez-pare jarri dituena. Guk Euskal Herri osoan kalita-

tezko hezkuntza euskaldunaren alde egiten dugu; ez ditugu Eskola Publiko euskalduna eta Ikastola mokoka ikusi nahi, ez dugu uste proiektu ezberdinak direnik", azaldu zuen ekimeneko koordinatzaile Ibai Redondok.

BAIKORTASUNEZ

Horrekin batera, EHBE ekimenekoak baikor dira ikasturte berriaren aurrean. "Historikoa", horre-

la izendatu zuten aurtengo ikasturte amaiera, orduan onartuko dute eta Euskal Curriculum. Horrekin batera, Euskal Unibertsitate propio batean alde eta eskolaren bidez ikasleria euskalduntzea bermatuko duen proposamenaren alde agertu ziren.

Beste hausnarketa askoren artean, joan den ikasturtean egindako 3. Nazio Mintegietan adostutakoa praktikan jartzeko ordua dela adierazi zuten, aurtengoa "Hezkuntza Sistema Nazionalaren ikasturtea" izan dadin lan egingo dutela, eta aldarrikapena errealitate bilakatzen ari direla gaineratu zuten.



PRENTSAURREKOA EHBE ekimeneko ordezkariak, zapatuko prentsaurrekoan. x.u.



Erosten jakin:

ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
Erosten jakin

GIZARTEA > ELKARTASUN KONTZERTUA

Estiloen fusioa Iturriгорriren aldeko kontzertuan

Zapatuan egin zuten Iturriгорri elkarlanaren aldeko kontzertua; jaialdiko antolatzaileak pozik agertu dira

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Hezur-muineko gaixotasuna dutenei laguntzea helburu duen Iturriгорri Elkarlanari laguntzeko musika emanaldia egin zuten zapatuan Amaia antzokian: "Publizitate larregi egin barik ere 250 lagun inguru batu ginen Amaia antzokian. Gainera, bertan batu ginenondako ikuskizun polita egin zuten Goikobalu Abesbatzakoek, Arrasate Musikaleko Big Bandekoek, eta baita Belceblues taldekoek ere. Nik neuk, behintzat, ederto pasatu nuen", esan digu elkarlaneko kide Jon Goikoetxeak.



'KLIKOWSKY' ETBko telesailako aktoreek aurkeztu zuten emanaldia.

J.A.

ESKERRAK DENEI

Esker oneko berbak izan ditu Goikoetxeak, eta kontzertu oso ona egin zutela gaineratu: "Niretako,

taldeek elkarrekin jo zituzten abestiak izan ziren bereziak, estilo diferenteen fusioa". Aurrera begira, elkarlaneko ordezkariek

azaldu digu euren egitasmoa hiriburura zabaltzea dela hurrengo erronka "Bilbo aldean kontzientziazioa lantzea da gura duguna".

GIZARTEA > OMENALDIA

Debagoieneko bost artzain omenduko dituzte gaur

Ameriketara joandako artzain euskaldunak omenduko dituzte gaur Gernikan, tartean, bost debagoiendar

omenez bi metroko monumentua jarriko dute Europa parkearen aldamenean, Gernikako arbolatik 150 metrora.

GURE ORDEZKARIAK

300 artzain horien artean daude bailarako bost: Paulo Ibaibarriaga (Arrasate), Pedro Andrinua (Bergara), Juan Ugartetxea (Bergara), Martin Etxezarreta (Oñati) eta Aretxabale-tako Joxe Gisazola.

Lagun horien artean, Martin Etxezarretak esan digu pozik dagoela omenaldia dela-eta: "Pozik nago, baina ez naiz Gernikara joango, autoan ibilita gorputz txarra geratzen zait-eta". Urtetan Urbiako tabernan lanean jardundakoa da Etxezarreta, baina lehenago ia 15 urte egin zituen Ameriketara: "Oregonen, Washingtonen eta Nevadan izan nintzen ni. Txarrena zen ez genekiela ingelesez berba egiten, baina nik gozatu egiten nuen han, mendian, ardi artean. Urte ederrak izan ziren haiek".

XABIER URTZELAI > BERGARA

"300 artzain inguru batuko gara la esan didate antolatzaileek, egun oso polita izango da". Arantzazuko Artzain Eskolako Nikolas Seguirolaren berbak dira horiek. Seguirola Gernikan izango da gaur, baina ez saria jasotzen, Euskal Herriko artzainen ordezkari moduan: "Gainera, berba batzuk esan behar ditut, eskerrak eman eta bestelakoak esateko".

Hala, Artzain Mundua foroa *Ohore zuri euskal artzaina* lelopean omenaldia egingo die Ameriketara joandako artzain euskaldunei. Gernikan egingo dute ekitaldia, eta artzainen

> AISIALDIA

Txatxilipurdik eta Jardun elkarteak aisialdirako begirale izateko ikastaroa antolatu dute

Kurkudi eskolak emango du aisialdirako begirale izateko ikastaroa. Hala, ikastaroa egiten duenak Eusko Jaurlaritzak homologatutako begirale titulua jasoko du. Berrehun ordu teoriko egingo dituzte, eta praktikak egingo dituzte ondoren. Urriaren 20an hasiko dituzte eskolak, eta bi astean behin elkartuko dira, zapa-tuetan. Matrikularen prezioa 350 euro da.

> URTEURRENA

Hitzorduz beteta dator Besaide Mendi Elkarteak 50. urteurrena ospatzeko egingo duen Mendi Astea

Besaide Mendi Elkarteak 50 urte betetzen ditu aurten, eta hori ospatzeko, ekitaldiz betetako Mendi Astea antolatuko dute. Hala, Pilarikako zubian egingo duten mendi irteerarekin ekingo diote mendi asteari (urriak 3 eta 4 dira izena emateko egunak, Besaideko egoitzan). Horrez gain, hainbat ikus entzunezko antolatu dituzte urriaren 16tik 25era egiteko. Urriaren 26an, berriz, 50 urteak jasotzen dituen liburua aurkeztuko dute.



JOSETXO ARANTZABAL

Presoen eskubideen alde egiteko elkarretaratzea egin zuten egubakoitzean


Etixerat elkarteak deituta, hileroko azken egubakoitzeko elkarretaratzea egin zuten ibarrean. Kale bilkuratan batu ziren lagunak Frantziako eta Espainiako estatuek indarrean duten sakabanaketa politikaren kontra egin zuten, eta euskal preso politikoen nahiz senideen eta lagunaren eskubideak behin eta berriro urratzen dituztela salatu.

Hori horrela, Etxeratak presoak geroago eta bakartuago daudela salatu zuen. Irudian, Arrasaten egindako agerraldia.

AZKARATE
aroztegia



*Arotz lanetan
behar duzun guztia*



- Ateak
- Leihoak
- Horma-armairuak
- Tarimak
- Parketak
- Sukaldeak

Azken urte hauetan zabaldu da, Internet bidez batik bat, gizakia ez dela benetan ilargira heldu. Uste hori noizkoa den, hipotesi horren aldeko probak zein diren, zientziak horren gainean zein iritzi duen... izan ziren berba guztiak antolatuta Oñatin izan zen hitzaldian. Konspirazioaren teoriaren aldeko probak aztertu zituzten besteak beste.

Luis Alfonso Gamez > Kazetaria

"Mendeak pasako dira baina noizbait gizakia espazioan biziko da"

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Zientzia gaietan aditua da Luis Alfonso Gamez eta *El Correo* egunkarian idazten du. Oñatin hizketarako izan zuen gaiaren gaineko kezka mende hasieran sortu zitzaion eta gizakia ilargira iritsi ote zen argitzen saiatu gara berarekin.

Noiz sortzen da zalantza gizakia ilargira iritsi ote zen?

1974an Bill Kaysing amerikarrak panfleto bat kaleratu zuen, argudio sendorik gabea, esanez gizakia sekula ez zela ilargira iritsi. Gero pixka bat ahaztu zen ideia, baina mende honen hasieran konturatu ziren asko zirela AEBetan zalantza zutenak.

Zein dira ideia hori baieztatzen edo gezurtatzen duten probak?

Probarik garbiena da errusiarrak ez zutela iruzurrik salatu. Ilargira iristeak ez zuen zientzia arloko helbururik, proiektu militarra zen: Sobietar Batasunaren eta AEBen arteko lehia ilargira nor lehenago iritsi. Batzuek dioten moduan amerikarrek estudioetan grabatu izan balute errusiarrak lirateke lehenak salatzen.

Zein argudio ematen dituzte guztia estudio batean egindako muntaia dela diotenenek?

Esaten dute ilargian astronautek ateratako argazkietan ez direla izarrak ikusten; itzalek portaera arraroa dutela; bandera mugitu egiten dela; eta argazkiak onegiak direla astronautek ateratakoak izateko. Baina izarrak sekula ez dira ikusten espazioko argazkietan ahulak direlako. Izarrak atereaz gero argazkian beste guztia erreta agertuko litzateke. Bestalde, bandera mugitzen dela diotenean kontuan hartu behar da ez zegoela ohiko masta batean eta gainera zimurru egin zutela erabat zurrun ez geratzeko. Itzalen kontuan diote bi argi iturri baleude bezala jokatzeko; baina hori da muinoak igozten edo jaisten ari direlako, hortaz, goikoaren itzala luzeagoa da.

Zer esango zenieke guztia muntaia dela dioten horiei?

Gertakaria zuzenean bizi izan zutenak pixkanaka hiltzen ari dira, hortaz, ezagutu ez zutenek beste ikuspegi bat dute. Esango nieke nahikoa argudio dagoela probatzeko gizakia ilargira heldu zela. Esaterako, lurrean dauden ilargiko harriak munduko geologoek aztertu dituzte eta diote ezin direla laborategian sortu.



Ilartegi elkartearen eskutik ilargiaren gaineko hitzaldia egin zuen Luis Alfonso Gamezek Oñatin.

LEIRE KORTABARRIA

Beste proba bat da ilargiratzeak egin bitartean irratiz zaleek jarraitu zituztela astronauten misioak eta uhinak hartu ahal izateko ekipak astronauten aldera begira ipini behar ziren, ilargira, alegia. Hori faltsutzea ezinezkoa zen. Teleskopio bidez ere askok jarraitu zuten ilargiratzea. Argudioak asko dira, baina sinetsi nahi ez duenak ez du sinetsiko. Badira galdetzen dutenak egia bada zergatik ez den gizakia ilargira itzuli. Baina zertarako? Orduko helburua militarra zen baina orain ez dago horrelako helbururik. Gainera, kontuan hartu ilargiratze proiektuan 400.000 lagunek hartu zutela parte. Konspirazio bat balitz parte hartu zuten horietakoren batek probaren bat kaleratzea ez litzateke arraroa izango, baina ez da horrelakorik gertatu. Hurrengo hamarkadan ilargiko argazkiak ateratzen dituztenean ikusiko dira Apoloren hondakinak, banderenak...

PROBAK

"Amerikarren ilargiratzea errusiarrak iruzurtzat ez hartzea da probarik garbiena"

ARGAZKIAK

"Hurrengo hamarkadan ilargiko argazkietan ikusiko dira Apoloren hondakinak"

ILARGIRATZEA

"Amerikarren helburua da 2015-2020 urteen artean ilargira iristea eta base bat antolatzea"

Zientziak zer dio horri buruz?

Zientzialariek ez dute zalantzarik. NASAk ere, orain dela gutxira arte, ez zuen uste jendeak zalantzak izan zitzaizkien ilargiratzearen gainean. Nik neuk Pedro Duque astronautari galdetu nion behin gai honen gainean eta berak uste zuen ez zegoela uste horretako jende askorik; beranduago ohartu zen uste baino gehiago zirela esaten zutenak gizakia ez zela ilargira iritsi. Zientzialarien, geologoek, proba fidagarrienak ilargiko harriak dira.

Diote astronautek objektu hegalaria ezezagunak (OHE) eta beste zibilizazio batzuen aztarnak ikusi zituztela.

Astronautek horrelakoak entzunda barre egiten dute. Ez dago probarik ilargian ezer arrarorik ikusi zutela baieztatzen. OHEak ikusi zituztela esateko elkarrizketa batean oinarritzen

dira kontuan hartu gabe beste zerbaitetaz ari zirela. Hondakinena, berriz, asmakari bat izan zen. Proba bakarra film faltsu bat da. Lebitatzen dutela, estralurtarrek komunikatzen direla, sendatzeko botereak dituztela... diotenek probatu egin behar dute; eta kasu honetan ez dago probarik.

Zergatik ez du elkarrizketarik eskaintzen ilargira lehenengo iritsi zen gizakiak?

Astronautak oso bereziak dira. Kontuan hartu behar da ilargira iritsita pentsa dezaketela... "eta itzultzen ez bagara"... Aldrini galdetu izan diotenean ea berriz joango litzatekeen ilargira ezetz erantzun du eta plater hegalariei buruz galdetuz gero barre egiten du. Bestalde dio posible dela beste mundu batzuetan bizitza egotea baina kasualitate handiegia dela orain, gu espaziora atera gaitezkeenean etortzea. Gainera kokoteraino daude beti galdera berdinak entzuteaz

Noizko dago iragarrita hurrengo ilargiratzea?

Nazioarteko espazio estazioa amaitzen denean aurreikusita dago transbordadoreak kentzea, 2010ean gutxi gorabehera. Ondoren, espazio-ontzi berriak ipiniko dituzte abian eta amerikarren helburua da 2015-2020 urteen artean ilargira iristea eta base bat antolatzea, hori guztia Martitzetarako misio baten ataria litzateke. Oso garestia da baina noizbait lurretik irten nahi badugu behintzat lekurik aproposena ilargia da, gertu dagoelako.

Gizakiak benetan du ilargira bidaiatzeko beharra?

Baietz uste dut, batik bat espazieira irauterazteko. Gure arbasoek zioten ez zela komenigarria arrautza guztiak otzara berean ipintzea, eta hori aintzakotzat har dezakegu. Une honetan gizaki guztiak lurrean gaude eta dinosauroak desagerrarazi zituen moduko talka bat gertatuz gero gizateria guztia desagertuko litzateke. Hortaz, gizakiak izango balira ilargian, Martitzen edo Titanen... ez genuke desagertzeko arriskurik. Gainera, gizakia esploratzailea izan da beti eta oraindik kosmosa geratzen zaigu ikertzeko. Mendeak pasako dira baina noizbait gizakia espazioan biziko da, ez behar bada *Star Trek*-en moduan, baina iritsiko gara. Horretarako ilargia da lehenengo pausua.

oharrak eta deialdiak

ARRASATE

> Fibromialgia eta neke kronikoa berbagai

Bizi Bide elkarteko kideek egingo dute hitzaldia. Urriaren 4an izango da, 18:00etan, Kulturaten.

BERGARA

> Ayllon mendilerroa irteera Pol-Pol eta Gortala mendi taldeekin

Nagusiendako irteera da eta urriaren 12tik 14ra bitartean izango da. Herriko mendizale guztiak daude gonbidatuta. 18:00etan izango da irteera, Fraiskozuritik.

DEBAGOIENA

> Geriatria ikastaroa, Gurutze Gorriarekin

Urriaren 15etik azaroaren 5era bitartean izango da. 30 ordu teoriko eta 20 praktikok osatzen dute eta eskolak izango dira asteleheneetik egubakoitzera, 18:15etik 20:30era. Prezioa 115 euro da. Izen emateko edo informazio gehiagorako, deitu 619 00 35 00 telefono zenbakira.

BERGARA

> Ekonomia jarduerengaitzeko zerga ordaintzeko epea zabalik dago

Gaur, astelehena, zabaldu eta azaroaren 12an amaituko da. Borondatezko epea bukatu eta gero erre-karguarekin kobratuko dute. Erreziboen ordainketa banketxearen batean helbideratuta duten zergadunei, banketxearen beraren

bidez bidali eta kobratuko zaie. Helbideratu gabe dutenen kasuan, berriz, datozen egunetan etxean jasoko dute ordainketa egiteko beharrezkoa den agiria. Agiri horrekin, edozein banketxe edo udal bulegotatik pasa daiteke ordainketa egiteko.

ARAMAIO

> Urriko hiru egunetan izango da dinamizatzaile KZgunean

Urriaren 1ean, 15ean eta 29an egongo da. 16:00-18:00. Bestalde, gogoratu behar da dinamizatzaile gabe bada ere, egunero nabigatzeko aukera dagoela KZgunean, 17:00-19:30.

BERGARA

> Heldutasunaren plaza delako ikastaroa

Udaleko Gizarte zerbitzuek antolatu dute eta helburua da urteen joan-etorriaz gogoeta egitea eta zahartzen ikastea. Eskolak urria-

ren 4tik abenduaren 20ra izango dira, egunetan, 15:00-17:00. Izenematea da gaur, astelehena, Gizarte Zerbitzuetan (943 77 91 80).

DEBAGOIENA

> Aisialdirako begirale ikastaroa Txatxilipurdi eta Jardun elkarteekin

Jaurlaritzak homologatutako titulua lortzeko aukera ematen du. 200 ordu teoriko eta 120 praktiko dira. Prezioa da 350 euro. Arrasateko Udalak matrikularen %50 diruz laguntzen du eta Bergarakoak %60. Izenematea da urriaren 11ra arte. Jardunen (943 76 08 19) edo Txatxilipurdin (943 79 54 46).

ESKORIATZA

> Urriko hiru egunetan izango da dinamizatzaile KZgunean

Urriaren 5ean, 19an eta 31n egongo da, 18:00-20:00. Bestalde, gogoratu behar da dinamizatzaile gabe bada ere,

egunero nabigatzeko aukera dagoela KZgunean, asteleheneetik egubakoitzera, 10:30-13:00 eta 16:30-20:00 eta zapatuetan, 10:30-13:00.

ARRASATE

> Aretoko dantzen ikastaroa Abaroan

Urriaren 3an hasiko dira eskolak. Parte hartu nahi dutenek esandako egunetan azaldu besterik ez dute. Iaz bezala, eguaztenetan izango dira eskolak, 10:30-11:30.

ARRASATE

> 1943an jaiotako emakumeen bazkaria

Urriaren 27an izango da, batzokian. Izen emateko 20 euro aurre-ratu behar dira Muruamendiaraz gozotegian.

BERGARA

> Zabalik dago izenematea Xipizaro ludotekan

3 eta 12 urte arteko umeendako da. Asteleheneetik egubakoitzera eman daiteke izena, 10:00-20:00, zenbaki honetan: 696 15 99 24.

ARRASATE

> Txatxilipurdik lan eskaintza egin du

Ludoteka eta gazte txokoetarako dinamizatzaileak behar dituzte. Arrasateko ludotekan eta gazte txokoetan lau orduko kontratuko lana eskaintzen dute; eta Aretxabaleta, Eskoriatza eta Antzuolako gazteleketan aste bukaerako lana. Informazio gehiago: 943 79 54 46.

etxeko leihotik



Leire Kortabarria > GOIENKARIAko erredakzio burua

"Ondo bukatu; edo, behintzat, agudo bukatu"

Gauzak aguro eta ezin hobeto, biak, egin behar ditugula irakasten digu gaur egungo gizarteak, eta horrek datozkigu gero buruko minak eta estresa, garai honetako gaitz hedatuenetariko bat eta beste gaitz batzuen sarrerate. Esaten dute XXI. mendeko benetako izurritea gaitz psikologikoak izango direla, neurri batean edo bestean, eta behar bada, halaxe izango da, herrialde garatuetan, behintzat: zer jan eta non lo egin dagoeneko kezka ez direnean, bestelako ardura batzuk sortzen dira.

Horren guztiaren harira, lerrootara ekarri gura dut kolaboratzaile batek esan zidana, nire pentsaera ere horixe delako: aste bukaeran, astero bezala, lanean genbiltzala, berak artikulua bidali eta "Ondo bukatu, edo, behintzat, aguro bukatu", idatzi zidan. Horrek irribarre eragin zidan. Izan ere, askotan, gauzak ondo egitea baino hobe eta garrantzitsuagoa da, besterik gabe, egitea. Gauzak ahalik eta ondoen egitea baldin bada gure helburu bakarra, denbora joan egingo zaigu eta akaso ez ditugu sekula egingo. Gainera, beti egongo da hobeto egiteko modu bat. Hortaz, egin dezagun; ontasuna berez etorriko da.

"Askotan, gauzak ondo egitea baino garrantzitsuagoa da, besterik gabe, egitea"

> Udako argazkien lehiaketako irabazleak zenbaki honetan bertan daude. Zorionak! Argazki polit asko jaso ditugu; eta eskertzekoa da freskotasuna, klik egin eta hortxe harrapatzen den unearen xarma.

> Udazkena etorri da, lehenengo hotz eta euri boladarekin. Uda sargoria eta eguzkitsua izango genuela iragarri zuten meteorologek zer iragarriko dute, bada, oraingo urtarorako? Asmatuko ote dute?

debagoiendarrak kanpoan

Amparo Igartza Ugarte > Antzuola

"Niretzat Antzuola beti izan da herririk onena Iruñean gustura egon arren"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Antzuolako da Amparo Igarza eta egun Iruñean bizi bada ere doan tokira doala garbi utziko du antzuolara dela. Hizkeran ere sumatzen zaio herriko euskara gorde duela.

Nolatan joan zinen Iruñera?


1966an etorri nintzen Iruñera senarra bertakoa delako. Ama nafarra nuen eta gustura etorri nintzen. Hala ere, nik haren aldeantzik bidea egin nuen. Ama baztandarra zen baina Iruñean zegoen lanean eta aita ezagutu zuen hura soldadu zegoela Iruñean. Antzuolara joan ziren gero eta han bizi izan ziren. Nik, lehen-gusina baten ezkontzara Iruñera joan eta han ezagutu nuen gero-ra nire senarra izango zena; haren atzetik etorri nintzen Antzuolatik Iruñera.

Orain dela gutxi hartu duzu erretiroa, ezta?

Bai, ile apaintzailea naiz eta Iruñean neure ile apaindegia nuen bertan jardun dut lanean orain dela gutxi erretiroa hartu nuen arte.

Sarritan etortzen zara Antzuolara bisitan?

Orain ez horrenbeste, baina garai batean astero-astero joaten nintzen Antzuolara. Seme-alabek ere ez daukate Antzuola saltzeko, euren herritzaiz daukate. Izan ere, horrela ohitu nituen maiz bertara bisitan joanda, eta gustura joaten ginen denok, gainera. Gero aita eta ama hil egin ziren eta izeba bakarrik geratu zenean gurekin etorri zen Iruñera bizi izatera. Hortaz, ez gara hain sarri joaten orain bisitan.



GOIENKARIA

Erretiroa hartuta

Ile apaintzaile jardun ostean erretiroa hartu zuen eta Donostian egoten da Antzuolako lagunekin.

Hala ere, Antzuolako jendearekin harremana baduzu oraindik, ezta?

Erretiroa hartu genuenetik Donostiara joaten gara eta han Antzuolako jendearekin egoten naiz. Bestalde, Antzuolako kontu denen berri izaten dut. Ahizpa oraindik han bizi da eta beste senide batzuk ere, haiek ematen didate herriko berri.

Antzuolako zerbaiten faltarik sumatzen duzu?

Ez dut ezeren faltarik, beti ere hiriburua herria baino gehiago izaten delako, baina niri herria beti gustatu izan zait. Niretzat Antzuola beti izan da onena. Baina ez nuke hango ezer ekarriko Iruñera, daukadanarekin gustura nago eta zerbait behar izanez gero Antzuolara joan eta kitto.

Inoiz pentsatu duzu Antzuolara bueltatzea?

Ez naiz itzuliko, jadanik bizi-modua Iruñean finkatua dut eta ohitu naiz. 25 urte nituen etorri nintzenean eta 67 dauzkate orain, urte asko pasa dira hemen bizi naizela eta behin hona iritsita orain Antzuolara bueltatzea niretzat ere arraroa litzateke.

Beti antzuolar sentituko zara hala ere.

Bai, bai. Hizkera ere ez dut galdu. Seme-alabek ere ikastolan ikasi dute baina nirekin edo Antzuola inguruko norbaitekin berba eginez gero eurek ere horko euskara erabiltzen dute. Gainera, horrako joera ere mantentzen dute oraindik eta galdetuz gero beti esango dute Antzuolako jatorria dutela.

kale inkesta

Kalegoiena eta kiroldegiko aparkalekuek herrian dagoen gabezia konponduko dute?

Begonia Zubikarai
Langilea
Oñati

Aparkaleku arazoa gaizki dago; baina, orain zerbait hobetuko da aparkaleku berriekin. Lehenengo ordu erdia doan izatea gutxi iruditzen zait. Beste herri batzuetan lehenengo bi orduak izaten dira doan.

Joseba Yarza
Langilea
Oñati

Kiroldegi inguruan auto asko ibiltzen da eta uste dut han aparkaleku gehiago jarri beharko lituzketela. Hala ere, orain egin dituzten aparkalekuak herri erdian daudenez, arazoa zerbait konponduko dute.

Ana Mari Yarza
Langilea
Oñati

Nik ez dut gidatzen, baina, arazoa dagoela ikusten dut. Jaietan aparkalekuak doan izatea ondo ikusten dut. Bestalde, normala da aparkalekuak erabiltzearen ordaindu behar izatea; leku guztietan gertatzen da.

Anparo Beitia
Langilea
Oñati

Oso zaila izaten da aparkalekuak bilatzea herrian. Ondo iruditzen zait egun hauetan autoa uztea doan izatea; beste herri batzuetan, Legazpin adibidez, arratsaldeko betatik aurrera ez da ordaintzen.

zorroztailea



Juan Luis Azkarate

Data historikoa

"Igerilekuan ura dagoen ziur jakin gabe egin du murgil Ibarretzek, baina murgil egin du: erabaki esku-bidearen gaineko negoziazioa eskaini dio Espainiako Gobernuari, epe zehatza jarrita; gizarteari zer galdetu nahi dion zehaztu du eta gatazkaren konponbiderako proposuari amaiera urtea jarri dio".

Berria > 2007-09-29



Oso egokia Imanol Muruak erabili duen igerilekuaren metafora. Nire iritzia, igerilekuan ez dagoela ur tanta bat ere ez. Eta zalantzaren bat egotekotan, abuztuan argi eta garbi gelditu zen igerilekua siku dagoela, Madrilek ezereztatu zuenean PSE-NBai koalizioa Nafarroaren gobernu UPNren eskuin ultramontanoari emanaz. Hor PSOEk eta Zapaterok kartak mahai gainera atera zituzten eta politikaren eta demokraziaren legerik sakratuenak, momentu solemneetan aho betean aipatzen dituztenak, ezereztatu.

Baina, tira, urte oso bat du Ibarretzek igerilekua urez betetzeko eta, egun, ia ezinezkoa ikusten bada ere, gauza arraroagoak ikusi dira politikan. 2008. urtea erabakigarria izan daiteke, baina urte berean Espainiako Gobernurako hauteskundeak izatea erronka honen zailtasuna areagotu daiteke oraindik gehiago. EHk, berriro ere, protagonismoa bereganatuko du Madrileko Gobernurako hauteskundeetan eta hitz-potoloak entzungo dira nonahi.

Horra hor zapatuko *El País* egunkariaren izenburu nagusia: "Ibarretzek data jartzen dio Estatuaren kontrako erronka inkonstituzionalari". ZPren lehenengo erreakzioak, berriz, askoz motelagoak izan ziren: "Entzungo diot, baina berak niri ere". Talantea ote?

Ibarretzek zeharkako lan itzela egin beharko du eta, behar bada, proiektua aurrera eraman ahal izateko kanpoan bilatu beharko ditu laguntzak. Izan ere, Europan bertan zurrundiloak nonahi daude: Belgika, Kosovo, Eskozia... monarkiaren aurkako kale agerraldiak Katalunian... Irlandako auzian ere, AEBen parte hartzea garrantzitsua izen zen. Lortuko lituzke Ibarretzek pisuzko laguntzak Europan barrena? Eta, barruan, zein izango da ezker abertzalearen jarrera, hasierako derrigorrezko epeltasunetik haratago? Zer esango du Imazek?

Etorkizunak argituko ditu zalantza guzti hauek; baina gauza bat argi dago: badugu euskaldunok hain gustoko dugun fundamenduak data historikoa.

"Nire iritzia, igerilekuan ez dagoela ur tanta bat ere ez"

"Lortuko lituzke Ibarretzek pisuzko laguntzak Europan barrena?"

irakurlearen txokoa

943-25 05 02

goienkaria@goiena.com

ARRASATE

> Zapatu gauetan automobilak nonahi aparkatuta

Irakurle batek idatzi digu salatzen, herritar asko aste barruan arduratzen dela autoa ondo aparkatzeaz, baina asteburua iritsitakoan, egubakoitz eta zapatu gauetan jendeak nonahi uzten dituela autoak: "Ez dituzte autobus geltokiak errespetatzen, ezta oinezkoendako espaloiak ere. Aste barruan denok zintzo, eta egubakoitz eta zapatu gauetan gura duguna egiten dugu".

OÑATI

> Pintadak egin dituzte unibertsitateko hormetan

Oñatiar batek deitu digu unibertsitateko horman egin dituzten pintadak direla-eta haserre dagoela esaten. "Jaietan ez da dena libre. Diru mordoa gastatzen dugu herrian ditugun eraikin garrantzitsuak zaintzen, gero bertan pintadak egiteko".

Gainera, ez dira urte asko unibertsitatea bera kanpotik eraberritu zutela.

ARETXABALETA

> Kaleko zaborra garbitzeko makina aproposena?

Aretxabaletar batek honako galdera egin digu, kaleak garbitzeko erabiltzen dituzten makinek ateratzen duten zarata dela-eta -airea botatzen duten horiek-. Garbitzaileek Aretxabaletan bakarrik ez, beste herrietan ere makina hori erabiltzen dute. "Zarata handia ateratzen dute, moto baten antzera. Goizean goiz hasten dira lanean, eta hemen askok gauze lan egiten dugu".

ustek uste

Mireia Bikuña

Kiroldegi berria zabalik azkenean!

Gaur goizean zabaldu dute kiroldegiaren eraikuntza berria. Azkenean! Kostata baina iritsi da eguna. Horixe pentsatuko dute, azken hilabeteotan eraikuntza berriaren zain egon diren kirolari guztiek. Atzerapenak tarteko, talde askok eta askok ez dute denboraldi-aurre egokia egiteko aukerarik izan (ez bakarrik Arrasaten). Ez al da beranduegi izango? Halaber, atzerapenak ekarri dituen lurraspiko aparkalekuak doaneko da jaiak bukatu arte. A ze pagotxa! Edozelan ere, aparkalekuaren gaineko nire kezka azaldu nahi dut. Aparkalekutik kalera igotzeko irteera ezin da erabili aparkalekura jaisteko, atea, barrutik itxita egoten da-eta. Gehienok, autoak sartzen diren sarrera erabiltzen dugu. Ez al da arriskutsuegia?

Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Erredaktorea Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirreazaldagi, Edurne Burgaña Oinarriko diseinua Golo Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larranaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.comORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Oñatiaren Lizentziaduna 31 • 132. posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.comARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.comPublizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.comHarpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale

ASTELEHENEN GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRTITZA orrialdean, edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako
Foru AldundiaEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaEusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13 Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **ARRASATE**
Usatexeko ludoteka inauguratu zuten egubakoitzean; Arrasateko hirugarrena da > 10



> **BERGARA**
San Martinekoek eta Aranzadi Ikastolakoek gertuago ikusten dute konponbidea > 11



> **OÑATI**
Denbora mugatuko zazpi aparkaleku jarri dituzte kiroldegian; bost minutuz utz daiteke autoa > 12



FLAUTISTA Zapatuan hasi zen organo erromantikoaren zortzigarren zikloa; irudian, Matthias Schlubeck musikari alemaniarra.

JOSETXO ARANZABAL

BERGARA > ORGANO ERROMANTIKOA

San Pedro elizako organoak panen txirula eduki zuen lagun zapatuan

ZIKLOA

Organo erromantikoaren zikloak beste hiru zapatu iraungo ditu

FLAUTISTA

Herenegungo protagonista Matthias Schlubeck izan zen: beso gabeko musikaria

EDURNE BURGAÑA > BERGARA

Organo erromantikoaren zikloa egokia da San Pedro elizako organoak elizkizunetatik kanpo beste emanaldi batzuetarako ere balio duela erakusteko, eta baita organoa herriak hobeto ezagutu ahal izateko ere. Zortzigarren edizioa da aurtengoa, herenegun hasi zen, eta beste hiru zapatu iraungo ditu. Bergaran bakarrik ez dira izango emanaldiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak Azkoitiko eta Azpeitiko udalekin elkarlanean, bertako elizetan ere antolatu ditu emanaldiak.

ORGANOA LAGUNTZEN

Herenegun, Bergarako San Pedro elizako organoak, panen txirula eduki zuen lagun. Alemaniatik etorritako Matthias Schlubeck musikariak jo zuen txi-

rula; besorik eduki barik, goi mailako titulua lortzen lehena da Schlubeck.

Hala, batzuetan lagunduta egongo badira ere, organoak dira protagonista nagusiak: Azpeitiko eta Azkoitiko Cavallé-Col eta Bergarako Slotz-Frères. Elizetan pantaila erraldoiak jarriko dituzte emanaldietan, herritarrek gertutik ikusi ahal izateko organoak. Hiru instrumentuak historia handikoak dira.

Zaharrena Azpeitiko da: 1887an egin zuten eta 60.000 pezeta balio zituen. Bergarakoari dagokionez, Parisen egin zuten 1889an, eta 36.500 franko ordaindu zituzten herrira ekarri eta San Pedro Apostoluaren elizan ipintzeko. Urte hartako martxoaren 18an inauguratu zuten, eta 1973an zaharberritu zuten.

Azkoitiko da berriena; 110 urte ditu eta 60.000 pezeta balio zituen bere garaian. 1976an zaharberritu zuen Gabriel Blancafort-ek.

HITZORDUAK

Azpeitian domeketan izango dira emanaldiak: datorrenean, 7an, Mami Sakato organo-jole japoniarra, 14an Naroa Intxausti sopranoa eta Loreto Aramendi organo-jolea, eta 21ean, Javier Artigas eta Joxe Benantzi Bilbao organo-joleak ariko dira.

Azkoitiko kontzertuei dago kienez, datorren zapatuan Jose Luis Franzesena organo-jolea eta Aretxabaleta Abesbatza entzuteko aukera egongo da, hurrengoan, hilaren 13an, Heinrich Walter organo-jolea, eta amaitzeko, urriaren 20an Schubert Abesbatza eta Alize mendizabal organo-jolearen txanda izango da.

Egitaraua, eguna-ordua

Organo erromantikoaren zikloaren zortzigarren edizioa da aurtengoa. Bergarako emanaldiak San Pedro Apostoluaren elizan izango dira, hurrengo hiru zapatuetan eta 20:00etatik aurrera.

urriak 6, zapatua

Mami Sakato organo-jole japoniarra.

13, zapatua

Aretxabaleta Abesbatza, Jose Luis Franzesena organo-jolea eta Azpeitiko Udal Musika Bandako zuzendaria.

20, zapatua

Naroa Intxausti sopranoa eta Loreto Aramendi organo-jole oriotarra.



LANEAN Egunotan lurrean baldosak ipintzen ibili dira, orain, zolatzea falta zaie.

U.M.

OBRAK > FERIXALEKUKO APARKALEKUA

Ikastolako aparkalekuko sarrera, Maritxutarako

Eguraldiak lagunduz gero, gaur astelehena hasiko dira lurra asfaltatzeko lanak egiten

UBANE MADERA > ARRASATE

Bukatzeaz dira Ferixalekuko aparkalekuaren sarrera egokitzeko lanak. Obra Saitetik jakinarazi dutenez, Maritxutarako bukatuko dituzte; epe barruan, beraz. Hain justu ere, orain baldosak ipintzen dabilta eta falta zaie ate korrederoa eta baranda

ipintzea. Horrez gain, joan den asteko euriekin-eta, zorua ezin izan dute asfaltatu eta, ezustekorik ezean, gaur, astelehena, hasiko dira hori egiten.

Ferixalekuko jolastokiko aparkalekurako irteera berria egiten dabil Udala. Aparkalekuaren orain arteko irteera ez zen egokia,

justu oinezkoen pasabidera ateratzen zelako. Gainera, autoen joan-etorriaren eraginez, irteeran zegoen espaloia ezean txarra zen. Hala, irteera berria egingo diote aparkalekuari. Orain arteko irteeratik metro batzuk urrutirago, Amaia Antzokirantz. Eta, ate korredero bat ipiniko dute, eskola orduetan itxita egongo dena, umeak babesteko. Eskola orduak bukatzen direnean, udaltzainak arduratuko dira hura zabaltzeaz.



GOIENKARIA

Maritxuren inbutua Bionako lantaldearendako

Egubakoitzean hasi zen Maritxu Kajoi Komisiñue motorrak berotzen. Urteroko hitzorduari jarraituz, Nobenaixue egin zuten Maritxu amabirjinaren begiradapean, Herriko Plazan. Han, Komisiñuak Arabako Errioxako ardoa eta gazta banatu zituen herritarren artean. 18:30ean hasi ziren lan horretan, eta ordu ezin aproposagoa da txikiteroak batu eta datorren egubakoitzeko jaia, poliki-poliki, girotzen hasteko.

Egubakoitzean Biona tabernako lantaldea izan zen protagonista, eurek jaso zuten-eta Komisiñuaren inbutu preziatua. Hala, jaiko antolatzailen keinua izan zen, urtetan egin duten lana eskertzeko.

HEZKUNTZA > AISIALDIA

Arrasatek ludoteka berria dauka, Usaetxekoa

Arrasateko neska-mutikoak izan ziren inaugurazio ekitaldian protagonista

X.U. > ARRASATE

Egubakoitz arratsaldean inauguratu zuten Usaetxen egin duten ludoteka berria, eta normala den moduan, gaztetxoak izan ziren protagonista. Jolas-gune berria daukatelako pozik, gaztetxoek jolasten pasa zuten arratsaldea, ludoteka berria goitik behera estreinatzen, baita bertako jostailuak ere. Horrela behar zuen.

HIRUGARREN LUDOTEKA

Inaugurazioa eginda, Txatxilipurdiko arduradunek aitortu zuten, egubakoitzean, hainbat

urtetako proiektua egi bilakatu zela. Hala, Arrasatek dagoeneko hiru ludoteka ditu: Santa Marinakoa, Okendokoa, eta oraingo berria, Usaetxekoa. Jakin, lehenengo bi asteotan ate irekiak izango dituztela Usaetxen, eta urriaren erdialdetik aurrera Txatxilipurdiko begiraleak han izango dira lanean.

HAMAR LANGILE

Ludoteka berriak izango duen ordutegiari dagokionez, txikiendako (3-8 urte) 17:00etatik 18:30era arte izango da zabalik eta 9 eta 12 urte arteko neska-mutikoendako 18:30etik 20:00etara.

Hala, Maite San Vicente haurren saileko arduradunarekin batera beste bederatzigirale dabilta egun Arrasaten lanean.



KOLOREDUN ZAPIA Gaztetxoak Usaetxen, jolasten.

JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATEKO UDALA > DIRULAGUNTZA BANAKETA

33.000 euro pasatxoko laguntzak banatu dituzte

Banatu dituzte dirulaguntzak Kultura Sailean jasotako eskaeren artean; orain %60 kobratuko dute elkarteek

U.M. > ARRASATE

2007ko dirulaguntzen barruan, kultura elkarteendako dirulaguntzak banatu zituen joan den aste-gobernu batzarrak. 33.000 euro baino gehiago banatuko dituzte, hamar elkarteren artean. %60a epe laburrean kobratuko dute elkarteek. Gainerakoa, hau da, %40a dirulaguntzaren justifikazioa egin eta gero jasoko dute.

Bestalde, Corazon de Encina elkarteari ez dio dirulaguntzarik emango Udalak, izan ere, epez kanpo aurkeztu zuen dirulaguntza eskaera.

Laguntzen banaketa

KOPURUAK EUROTAN

Goikobalu	10.400
Trikitixa eskola	5.500
Lore Gazteak	4.800
Txikitxu-Arrostaitz	3.100
Udalaxpe Txistulariak	3.100
Arte Tailerleak	2.080
Doke antzerki taldea	1.800
Portalo elkartea	1.000
Margo taldea	1.000
Ttukun txalapartariak	800



ERAIKIN TXIKIA San Martinekoen gelak jarriko dituzte gaur egun Aranzadik erabiltzen duen eraikin horretan.

XABIER URTZELAI

HEZKUNTZA > INSTALAZIOEN GAINEKO AUZIA

Konponbidea hurbilago ikusten dute ikastetxeek

XABIER URTZELAI > BERGARA

San Martin ikastetxea eta Aranzadi ikastola pozik agertu dira azkenaldian darabilten instalazioen gaineko auzia, konpontzeko bidean jarri delako. Eguaztenean Lakuan elkartu ziren Hezkuntza saileko ordezkariekin, Bergarako Udaleko, Aranzadi ikastolako eta Hezkuntza Delegazioko ordezkariak eta adostu zuten irtenbidea izan daitekeena.

Adostu zuten Gabon osterako Aranzadi ikastolak libre uztea Martinez Iralako eraikin txikia. San Martin ikastetxeok eskatzen dituzten bi gelak jarriko dituzte han. Aranzadi ikastolak 3 gela, irakasleen gela eta fotokopia gela erabiltzen ditu eraikin horretan. Aranzadik egingo duen gela hustuketa horrek sortuko dituen eskolaratze arazoak aztertuko dituzte Hezkuntza ordezkarietako teknikariek, eta txosten bat egingo dute sortzen diren beharrak adieraziz. Litekeena da, Aranzadik galtzen dituen gela horiek ordezkatzeko,

modulu aurrefabrikatu bat jarzteaz Martinez Iralako gunean. Bestalde, Aranzadik libre lagatzen duen eraikin horretan konponketa lanak egingo dira. Aldi berean, epe luzera begira adostu zuten mahai bat eratzea, irtenbideak topatzeko. Izan ere, etorkizunean, Aranzadi ikastolak Martinez Irala laga beharko balu, han dauden ikasleendako instalazio berriak aurkitu beharko lituzkete administrazioak eta ikastolak.

SAN MARTIN ETA ARANZADI POZIK

Bai San Martineko zuzendaritza eta baita Aranzadiko Artezkaritza Kontseiluak pozik agertu dira hartutako erabakiarekin. Susana Iriarte San Martineko zuzendariak zera esan du: "oso pozik gaude ikasturte honetarako hartutako erabakiarekin. Bi gela behar ditugu ikasturte honetarako eta irtenbidea eman digute". San Martineko gurasoek batzarra egin zuten egunean erabakia baloratzeko eta pozik hartu zuten plan-

teamendua, baina erabaki zuten plazan egubakoitzetan egiten dituzten elkarretaratzeekin jarraitzea eta Udaltzatzen Osoko Bilkuretara joaten jarraitzea, "Aranzadik Errege Seminarioaren lagapen hitzarmena sinatu bitartean".

Aranzadi ikastolako Artezkaritza Kontseiluari, bestalde, ego ki iruditu zaio ikastetxe bien premiak asetzeko Lakuako bileran adostutakoari. "Pozik gaude Hezkuntza sailak behin betiko irtenbide globala emateko konpromiso serioa eta errealista hartu duela, eta horren arabera soluzio markoa adostu delako". Era berean dio Artezkaritza Kontseiluak eraikin txikiaren hustuketak Aranzadiri eskolaratze arazoak sortuko dizkion arren, "distentsiorako eta denontzako irtenbide duin baten mesederako" izango dela uste duela. Azkenik dio "itxaropentsu eta pozik" dagoela "gauzak bere bidea hartuz" doazelako: "Kilometroak jaia gainean daukagulako eta konponbidea abian delako".

HEZKUNTZA > EUSKARA

Gaztetxoei zuzendutako euskara errefortzuak

Lehen Hezkuntzako ikasleendako eta ume eta gazte etorkinendako eskolak Udalaren eskutik

E.M. > BERGARA

Udaleko Euskara Batzordeak ume eta gazteei zuzendutako eskolaz kanpoko euskara saioak antolatu ditu. Bi motatako ikastaroak antolatu dituzte: Lehen Hezkuntzako ikasleendako euskara errefortzuak bate-tik eta ume eta gazte etorkinendako euskara ikastaroak bestetik. Lehen Hezkuntzako

ikasleen kasuan (lehen mailatik 6. mailara bitartekoak) Jardun arduratuko da eskolekin. Argibideak Jardunen.

Ume eta gazte etorkinen kasuan bi multzo bereiztuko dira: 5-12 urte bitartekoak eta 12-16 urtekoak. Txikiekin Jardunen arduratuko da eta beste taldea Udal Euskaltegiak eramango du.

> UDA

Ekonomi jardueren gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea, azaroaren 12ra arte zabalik

Ordainketa egiteko borondatezko epea da azaroaren 12ra arte. Borondatezko epea bukatu eta gero errekararekin kobratuko dute. Erreziboen ordainketa banketxeren batean helbideratuta duten zergadunei, banketxearen beraren bidez bidali eta kobratuko zaie. Argibideak Kontu-hartzaitzetan, 943 77 91 64 zenbakian.

> GIZARTEA

Borondatezko lanaren gaineko ikastaroa urriaren 15etik 19ra, Lahar taldearen eskutik

Lahar taldeak antolatuta, borondatezko lanaren gaineko oinarrizko ikastaroa egingo dute Bergaran urriaren 15etik eta 19ra bitartean. Eskolak 17:00etatik 19:00etara izango da, eta boluntario izan dutenei zuzendutako doaneko ikastaroa da. Interesatuak 663 05 72 23 telefono zenbakira jo dezakete argibide eske.

> ODOL EMAILEAK

Urriko lehen odol ateraldia egingo dute eguaztenean Seminarioan, ohiko ordutegian

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak dei egiten du eguaztenean, urriaren 3an, egingo den odol ateratzean parte hartzeko. Ohikoa denez, 18:30ean hasiko da odol ateratzea Seminarioko lokalean. Urriaren beste bi odol ateraldi egingo dituzte: hilaren 17an eta 31n, hain zuzen.



IRATI AGIRREAZALDEGI

Dantzen bidez, kanpokoak gertuago

Deba ibarreko hainbat etorkinek euren herrialdeetako kulturak gurea gerturatzeko jaialdia egin zuten zapatuan Fraiskozurin. Bolivia, Brasil, Maroko, Ekuador, Kolonbia, Dominikar Errepublika eta Peruko ordezkariak euren jakiak gertatu zituzten dastatzeko. Ondoren, Brasil eta Boliviakoek dantzaldia eskaini zuten ikusleen gozagarri.

San Joxepeko lagunak Andaluzian

San Joxepe erretiratuen elkarreko lagunak Andaluzia aldean ibili dira. Irailaren 17an joan eta hilaren 24 itzuli ziren. Besteak beste, Granada, Kordoba, Malaga, Sevilla, Nerja, Ronda eta Marbella bisitatu dituzte. Paraje ederrak ikusteaz gain, uda zertxobait luzatzeko aukera izan dute, giro bikaina izan dute han eta. Torremolinosen zeukaten hotela eta hondartzara joateko aukera izan dute. Guztira, 102 lagun joan ziren Bergaratik eta pozik itzuli dira, primeran ibili eta gero. Alboko argazkia Sevilan ateratakoa da..



SAN JOXEPE



BOST MINUTU Argazkiko aparkalekuetan autoa, gehienez, bost minutuz utz daiteke.

MIREIA BIKUÑA

APARKALEKUAK > ZAZPI PLAZA

Denbora mugatuko zazpi aparkaleku kiroldegian

Lurrazpiko aparkalekutik oinez irteteko egokitutako sarreraren alboko plazak dira

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Zubikoa kiroldegiko eraikuntza berriaren aurrean egokitu diren zazpi aparkalekuak, denbora mugatukoak dira.

Aipatu aparkalekuak, kiroldegiko lurrazpiko aparkalekutik irteteko oinezkoendako egokitu den irteera puntuaren aldamenean daude.

GEHIENEZ, BOST MINUTU

Duela egun gutxi jarritako zutabe bertikalek adierazten dute, bereziki, Txantxiku Ikastolara, haurrak utzi edo hartzera doazendako egokitutako zazpi plaza horietan, gehienez, bost minutuz utzi daitekeela autoa, goizeko zazpiak eta erdietatik, arratsaldeko zazpiak eta erdieta-

ra. Hala, egonaldi luzeagoa egiten duten autoek, lurrazpiko aparkalekua erabiltzeko aukera dute. Dagoeneko, udaltzainek jarri dituzten lehenengo isunak.

ORDENANTZA

Aurreko asteko Osoko Bilkuran onartu zuen Udalak, kiroldegiko ea Kalegoieneko udal aparkalekuen erabilpena arautuko duen ordenantza. Hala, jaiak bukatuta, lehen ordu erdia doakoa izatea adostu dute.

Arrikruzeko ikurra, triatloi taldekoen arropatan

Oñatiko Garapen eta Turismo Ajerntziak eta Oñati Triatloi taldeak sinatutako hitzarmenaren berri eman zuten, eguen arratsaldean, Arrikruzeko harrera etxean. Agentziako eta triatloi taldeko ordezkariak, pozik agertu ziren sinatutako hitzarmenarekin.

Bi aldeek sinatu duten lankidetzaren hitzarmena 2008ko bukaera arte luzatuko da. Hitzarmena haren trukean Oñati Triatloi taldeak 4.000 euro jaso ditu. Hala, diru harekin, hainbat lasterketan korrika egiteko arropa erosi ditu: fraka motzak, mauka motzeko kamiseta, eta kamiseta tirantedunak egin dituzte, taldea osatzen duten 43 lagunendako.



MIREIA BIKUÑA

URTEURRENA > BAZKARIA

Txantxiku Ikastolako ikasle ohien bazkaria, urriaren 20an

Bazkarirako txartelak salgai jarri dira herriko bost tabernatan

M.B > OÑATI

Txantxiku Ikastolak bete dituen 40. urteurrena ospatzeko ekitaldi asko burutu dira azken hilabeteotan. Bada, azken ekitaldia, ikasle ohien bazkaria izango da. Azken ekitaldia, ikasle ohiek urriaren 20an egingo duten bazkaria izango da.

Bazkarirako txartelak salgai jarri dira, herriko hainbat tabernatan. Hala, 18 euroren truke, Izarraitz, Ona, Luis, Aker eta Otamendi tabernetan eros daitezke. Halaber, bazkariaren egunerako beste hainbat ekitaldi iragartzen dira.


EGITARAUA

Ikasle ohien eguneko lehen hitzordua, Agustinoen elizan, eguerdiko hamabiak eta erdietan ikastolako ikasle izan eta hil direnen omenezko meza ospatuko izango da. Ondoren, trikitilarien laguntzarekin, triki-poteoa egingo da bazkariko ordua iritsi arte.

Kiroldegiko kantxan egingo den bazkaria, arratsaldeko ordu biak aldera hasiko da. Halaber, bazkalostean, bertso-lari eta trikitilarien saioak eta kanta-paperak iragartzen dira.

KAMISETAK

Bestalde, gaur da urteurrenoko kamisetak eskuratzeko azken eguna. Ikastolako leloa duten kamisetak erdi prezioan jarriko dira salgai ikastolako jolaslekuan, arratsaldeko 16.45etatik 18.00etara.



BAZKARIA Argazkian, 30. urteurrenoko bazkaria.

IKASTOLA

JAIK

Espainiako bandera ez da jarriko Udaletxean

M.B > OÑATI

Julio Perez de Arriluzea, Oñatiko PPko zinegotziak aurkeztutako mozioa bertan behera utzi zuen udalbatzak, egunean egindako osoko bilkuran. Udalbatza osatzen duten alderdi guztietako ordezkariak aurkako botoa eman zuten "eskaeraren intentzioa maltzurra" azpimarratuaz.

Halaber, PPko zinegotziak aurkeztutako mozioan, udalbatzako bakoian Espainiako bandera jartzeko eskaeraz gain, osoko bilkura aretoan Erregearen argazkia jartzeko eskaera egiten zuen.

Bigarren eskaerak hark ere, ezezko borobila jaso zuen zinegotzien aldetik.

ESKORIATZA > UDAL KUDEAKETAN ALDAKETAK

Udal taldearen asmoa da hemendik aurrera gai guztiak batzordeetan aztertzea

ANVren helburua da batzordeen papera indartzea eta gaiak bertan aztertzea

Aurrekontu mugatua dutela eta, proiektuen lehentasuna aztertzen dabil Udala

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Astean Pedro Lasagabaster alkaterekin izan gara Eskoriatzako Udalak epe motzean eta ertainean kudeaketa moduan zer aldaketa izango dituen zehazteko.

Lehenik eta behin Lasagabasterrek argitu digu Udalak une honetan diru gutxi duela. Hala, datorren legegaldirako aurreikusitako aurrekontuak eta proiektuak mahai gainean jartzen hasi da udal taldea. Horren helburua da proiektu horien lehentasuna neurtzea eta horren arabera Udalaren kontabilitatea egokitzea.

BATZORDEEN GARRANTZIA

Udal taldeak dituen lehentasunen artean Pedro Lasagabasterrek nabarmendu zuen Santa Marina ingurunea ondo garatu gura dutela. "Ez dugu gura Intxaurtxuetan izan ziren moduko atzerapenik. Horretan saiatuko gara, nahiz eta konplikatuak izan".



UDAL KUDEAKETA Eskoriatzako Udaletxean (argazkian) kudeaketa modua aldatu gura du ANV-EAek.

IKER BARANDIARAN

Bestalde, alkateak azpimarratu du orain arte udaleko batzordeak "nahiko galduta" egon direla, eta horiek berehala berreskuratu gura dituztela. Hala, Lasagabasterren esanetan, batzordeek "ez dute behar bezala funtziona-

tu, aspaldian ez direlako parte-hartze eta eztabaida guneak izan". Horregatik, hemendik aurrera herritarren, erakundeen eta bestelakoen eskaera gehienak batzordeetan aztertzeke eta onartzearen aldekoa da alkatea.

Lasagabasterren esanetan, aspaldi honetan hainbat kontu alkateak edota gobernuko kide batzuk bakarrik erabaki dituzte. ANVko buruak, berriz, gurago du hori aldatzea, dena gardenagoa izateko.

> ESKORIATZA

Peoi lurperatzaile eta kontuhartzaile lan eskaintza

Eguaztenean Eskoriatzan egin zuten udaleko osoko bilkuran aho batez erabaki zuten bi lanposturen eskaintza publikoa egitea: peoi lurperatzailea eta kontu hartzailea, hain zuzen ere.

Azaldu zuten, orain arte bi lanpostu horiek hutsik egon dira, eta bitarteko langileekin bete izan dituzte hutsune horiek.

Epe laburrean jarriko dituzte lanpostu horien oinarriak Gipuzkoako eta EAeko boletín ofizialetan hurrenez hurren.

> ESKORIATZA

Maringo auzo etxea interes berezikoa izendatu du Udalak

Eguaztenean egindako osoko bilkuran udalbatzak erabaki zuen Maringo auzo etxea interes berezikoa izendatzea.

Auzo bereko Leixarrape elkarteak joan den urtean eraiki zuen auzo etxe edo elkarte, eta aurten eskaera hori egin dio Udalari.

Udal taldeetako ordezkari guztiek aho batez onartu zuten elkarteari izendapen hori ematea, auzoaren eta herriaren aldeko kultura eta gizarte izaerako ekintzak egiten dituztelako.

> ARETXABALETA

Gaztelekuaren gaineko berbaldia gurasoendako

Joan den asteburuan egin zuten Aretxabaletako gaztelekuaren opor osteko inaugurazioa. 12 eta 16 urte bitarteko zerbitzu hori Udaleko Gazteria Zerbitzuaren ardura da, eta Txatxilipurdi aisialdi elkarteak kudeatzen du.

Gurasoei zuzendutako berbaldi batzuk prestatu dituzte gaztelekuaren funtzionamendua azaltzeko. Aretxabaletan gaur, astelehena, egingo dute, 18:00etan, gaztelekuan bertan.

ARETXABALETA > HIRUATXEN ELKARTASUN PROIEKTUAK

Hiruatz Ekuatore Gineako hainbat nekazariren autosufizientzia lantzen dabil

Ekuatore Ginean oilo-granja abiarazi dute, eta 15 lagunei lana ematen die negozio horrek

I.B. > ARETXABALETA

Aretxabaletako Hiruatz Gobernu Kanpoko Elkarteak Ekuatore Ginean abiarazi duten CIPA proiektuaren berri eman digu. Herrialde horretako txirotasun handiko zonalde baten hegazti-granja bat antolatuta dute. Horrela, ekoizpena, administrazioa, salmenta, eraikinak, pentsuak eta beste batuta 15 lagun baino gehiagori lana ematea lortu dute.

Gaur egun 1.800 oilo daude eta %80a baino gehiagoko errunaldia dute. Horrez gain, azaro alderako 10.000 txita izateko beste

gune bat jarri gura dute, eta horretarako 50 metrotako oilategi bat bukatzen dabilta.

Proiektu horren helburua da 30.000 errun oiloetara heltzea, eta horren ostean haragitarako oilaskoei ekitea.

Dagoeneko pentsua egiteko fabrika lanean dago, eta orduko 1.000 kilo pentsu ekoizteko ahalmena dauka.

ABENDUAN KULTURA JAIALDIA

Hori guztia posible izan da Hiruatzek Udalaren eta hainbat herritarren laguntzarekin jasotako 100.000 euroekin.

Orain Mitelete-Evinayong zonaldeko nekazariaren garapena landu gura dute, duintasunez lan egin dezaten. Pentsua ekoiztu eta barazkigintza hobetu, hain zuzen ere. Horrekin lotuta, kultura jaialdia egingo du Hiruatzek abenduan informazioa emateko.



ARRAUTZAK Oilo-granjako langile batzuk hango arrautzak erakusten.

HIRUATX

IRIARTE

Umeen
denda
Helduen
lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

GIZARTEA > AHTREN GAINEKO INKESTA

Asier Agirre: "Aramaiotarrek normaltasunez eman dute iritzia"

Herritarren erdiak hartu du asteburuan inkestan parte; %97ak ezetz esan dio AHTri

Alkatearen esanetan, Udalera ez da iritsi inkesta bertan behera uztea agintzen duen instrukziorik

XABIER URTZELAI > ARAMAIO

"Ez dudana ulertzen da, zelan egon daitezkeen horrenbeste traba herritarrei gauza baten gaineko iritzia eskatzerako. Azkenean, herritarrek AHT-aren gainean ezin badute iritzirik eman, nork egingo du?". Hori da atzo Aramaioko alkate Asier Agirrek esandakoa.

Izan ere, Gasteizko auzitegiak egubakoitzean erabaki zuen Udalak herritarrei egin gura zien galdeketa ez baimentzea, baina Udalera ez da ezer iritsi. "Normaltasun osoz joan da asteburua, hona ez da inor etorri. Hainbat komunikabidetan azaldu da kontsulta egin gura izan dugula, baina hori ez da horrela. Guk egin duguna inkesta bat baino ez da, badakigu horrek ez duela inon-

go balio juridikorik, baina herritarren iritzia zein den jakin gura genuen, informazioa jaso, besterik ez".

Atzo iluntzean bertan egin zuten boto zenbaketa, herritarrek horrela eskatuta. 1.237 biztanle ditu Aramaiok eta 673 lagunek eman dute asteburuan botoa (%54ak). Jende kopuru horretatik, %97ak trenaren kontrako botoa eman zuen, eta 10 lagun azaldu ziren Abiadura Handiko Trenaren alde -bederatzi boto zuri zenbatu zituzten-.

BALORAZIO POSITIBOA

Agirre gustura geratu da herritarren aurrean inkestak izan duen harrerarekin: "Parte-hartze polita izan dela uste dugu, jende askok eman du eta botoa".



BOTOA EMATEN Barajuenen, Urbarrin eta Ibarren eman zuten atzo botoa. J.A.

KOMUNIKABIDE ASKOREN DEIAK

Aramaioko alkateak lanak izan ditu asteburuan komunikabideei erantzuten. Hori ikusita, normaltasun egoeraren berri emateko prentsaurrekoa egin zuten atzo: "Estatu mailan ere atera da albistea, hori badakit. Eta oraindik ere ibiliko dira gai honekin bueltaka".

teko prentsaurrekoa egin zuten atzo: "Estatu mailan ere atera da albistea, hori badakit. Eta oraindik ere ibiliko dira gai honekin bueltaka".

LEINTZ GATZAGA

Arlabandik Dominagara doan bidea konpontzen

Aldundiaren ardurapean daude lanok eta bidea zabaltzen dabilta

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Arlabango errepidetik gora, Dorletako amabirjinaren irudia dagoen paretik, Dominaga baserriraino doan bidea konpontzen dabil azken hilabetean Foru Aldundia. 120.000 euroko aurrekontua dute lanok, eta Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuaren ardurapean daude.

Porlanarekin eginda zegoen bidea eta egurrekin pasatzen ziren pisu handiko kamioiendako ez zen egokia. Orain zabaldu eta gogortu egin dute, eta asmoa da basotik egurrak ateratzen dituzten kamioi guztiak bertatik pasatzea. Hala, ez dira Gure Ametsa jatetxe ingurutik ibili beharko orain arte egin izan duten moduan. Laster bukatuko dituzte lanok.

ELGETA > HAURRESKOLA BERRIAREN DISEINUA LANTZEKO LEHENENGO PAUSOA

Jesus Kintela psikopedagogoak haurreskolek zelakoak behar duten azaldu zuen Elgetan

Jesus Kintelak esan zuen dagoen eremua handia dela eta sortzaileak izanez gero haurreskola polita egin daitekeela Elgetan

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Elgetan haurreskola berria presatzen hasi beharra dago. Lokala ia prest dago Torrealdean. Orain, haurreskolaren diseinua lantzen hasi beharra dago.

Udalak prozesu hori irekia izatea nahi du interesa duen herritar orok bere ekarpenak egin ditzan. Prozesu horren abiapuntua eguenean kultura etxean egindako hitzaldi bat izan zen. Jesus Kintela psikopedagogoak esan zuen haurreskolen diseinu erabakitzerakoan bi printzipio nagusi hartu behar direla kontuan. "Alde batetik umearen lasaitasuna eta segurtasun afektiboa zein fisikoa bermatu behar dira", esan zuen Kintelak. "Bestetik, hezitzaileen ongizate eta erosotasuna". Ateak nolakoak behar duten, beroketa sistemak, logelak, janaria prestatzeko ere-



HAUSNARKETA Haurreskolaren diseinuaz aritu zen Jesus Kintela aditua. MIREN ARREGI

mua, umeak aldatzeko eremuak... gauza asko hartu behar dira kontuan adituaren esanetan.

SORTZAILEAK IZATEKO UNEA

Elgetan 200 metro koadrotik gorako eremua dago haurreskola berriarendako. "Ondo pentsa-

zuten badugu eta sortzaileak bagara haurreskola polit bat diseinatu dezakegu", esan zuen Kintelak. "Estruktura sozial bat muntatu behar dugu non umeak eta hezitzaileak gustura egongo diren eta gurasoak ere bai".

ANTZUOLA > ERREPIDEAK

Kalebarrengo zubia itxita egon zen aurreko astean

Martitzenean itxi zuten zubia eta trafiko arazo batzuk sortu ziren

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Martitzenetik egubakoitzera itxita egon zen Kalebarrengo zubia; arrazoiak da zubia zabaltzeko lanak hasi dituztela. Egun horietan egitura indartzen jardun zuten. Bergara aldeko sarrera berria egiten dihardute eta bidegurutzeta bukatzen

dutenean ibilgailuak herrira sartuko dira Uzarragako zubitik eta San Josepe eta Lizarraga pasatu eta gero, Kalebarrengo zubitik igaroko dira. Gune horretan trafikoa areagotu egingoenez, zubia zabalduko dute.

Hainbat zirkulazio arazo sortu ziren, batez ere, Elayra zihozten kamioiekin; izan ere, nahiz eta seinaleztatuta egon Uzarragako zubitik joan behar zutela lantegi horretara, kamioi asko kalera sartu ziren, seinale horrekin ohartu gabe. Lan guztiak amaituko dituzte urtarilerako.



LANAK Makinak Kalebarrengo zubian lanean. A.I.

Kirola



> **FUTBOLA**
UDAK irabazi,
Mondrak
berdindu, eta
Aloñak galdu > 16



> **ESKUBALOIA**
Bergarak galdu
egin zuen Euskal
Ligako lehenengo
partidua > 19



> **ERRUGBIA**
Zale asko
Mojategin, lagun
arteko partidua
ikusteko > 19



> **PILOTA**
Aitor Mendizabal,
Antzuolako
pilotariarekin hitz
egin dugu > 20

AUTO LASTERKETAK > GORLAKO IGOERA

Zabaleta arerio barik Gorlan, Vilariñok istripua izan ondoren

Ander Vilariño hondarribiarrak femurra apurtu zuen entrenamendu saioan izandako istripuan

Aitor Zabaletak Lola Diamante autoarekin 2 minutu 29 segundo eta 55 ehuneneko denbora egin zuen

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Gorlara hurbildutako zaleak, Ander Vilariño eta Aitor Zabaletaren arteko lehia barik geratu ziren zapatuan. "Pena izan da Anderren istripua, bion arteko lehia bertan behera geratu da-eta. Hala irabaztea errazago da", esan zigun bukaeran Aitor Zabaletak.

Entrenamendu saioko igoeran Vilariñok istripua izan zuen. Bideko zulo baten autoaren kontrola galdu zuen eta bide bazterrean aparkatuta zeuden bi auto jo ondoren, bide-seinale bat apurtu zuen. Hala, Arana Goikoa base-riaren ondoan geratu zen.

Berehala, istripu lekura Gurutze Gorriko bi anbulantzia eta DYako Erreskate Unitatea iritsi ziren. Vilariño F3000 auto barruan geratu zen harrapatuta; lanak izan zituzten gidaria txapa artetik ateratzeko. Anbulantzia medikalizatu batek Hondarribiako gidaria Debagoienako ospitalera eraman zuen, eta han, femurra apurtuta zuela ikusi zuten. Hanka bereko errotula hautsi zuen 2006an Austrian izandako istripuan, eta 17 urte zituen, tibia eta peronea. Hala, gaur bertan egin diote ebakuntza Donostiako Policlinica ospitalean. Halaber, medikuek bi hilabeteko baja aurreikusi dute.

43 LASTERKARI

Bergara Racing taldeak zapatuan antolatu zuen XVII. Gorlako igoera, Euskadiko Txapelketako III. lasterketa zen. Guztira, 43 pilotuk eman zuten izena. Hala, entre-



ENTRENAMENDUA Argazkian, Ander Vilariño entrenamendu saioa egiten hasteko gertu; haren atzean, Aitor Zabaleta.

JOSETXO ARANZABAL

namendu saioan Ander Vilariñok izan zuen istripuaren ondoren, 42 autok eman zioten hasiera igoerari. Bada, lasterketa, 41 gidarik bukatu zuten.

Ordu erdiko atzerapenarekin, 17:30ean hasi zen lehenengo txanda. Bi igoerak egin ondoren, Aitor Zabaletak egin zuen denbora onena, 2.29,55, hain zuzen.

Bigarren tokian, 2.36,86 denborarekin, Aitor Erro sailkatu zen Osella PA 20 autoarekin. Halaber, hirugarren tokia, Alberto Alonso eskuratu zuen (2.36,90).

Debagoienako gidariek ere lan ona egin zuten. Aitor Ramirez oñatiarrak, 2.45,04 denborarekin, sailkapeneko bosgarren tokian bukatu zuen proba. David

Ardions oñatiarra bere mailako onena izan zen; bada, sailkapen orokorrean, 13. tokian bukatu zuen, 3.05,47ko denbora eginez. Aitor Orobengoa arrasatearra azkenik, 24. tokian sailkatu zen. Garagartzako gidariak 3.12,69ko denbora egin zuen helmugan. Zapatuan, 3500 ikusle inguru hurbildu zen Gorlara.

sailkapenak

1. Aitor Zabaleta	2.29,53
2. Aitor Erro	2.36,86
3. Alberto Alonso	2.36,90
4. Fran Cobo	2.38,97
5. Aitor Ramirez	2.45,04
6. Rafael Armas	2.47,22
7. Ibai Zarraga	2.57,05
8. Lebeiti	2.58,61

PARTE-HARTZAILEEN ESANAK

"Azken bi urteotan hamar kilometro egin ditut autoan; hala, kostata, bigarren igoeran hartu diot neurria autoari"

Aitor Zabaleta > Bergara

"Espero baino igoera hobea egin dut, autoak oso ondo erantzun du-eta. Nire mailan lehenengo geratu naiz"

David Ardions > Oñati

"Oso gustura ibili gara Gorlako igoeran. Autoarekin ez dugu inolako arazorik izan, eta istripurik ere ez dugu izan"

Aitor Orobengoa > Arrasate

"Lehia gutxi egon da gaurko igoeran. Edozelan ere, iazko denbora hobetu egin dut; hortaz, oso gustura nago"

Aitor Ramirez > Oñati

FUTBOLA > PREFERENTEA

Luzapenean berdindu zuen Hernanik norgehiagoka

MONDRA

1-1

HERNANI

Mondra > Calvo, Andoni, Illart, Laspiur, Mercader, Ruben, Keixi, Julen Heriz (Aranbarri 14. min), Murua, Lopez (Gotzon, 70. min), Ekain (Garmendia, 88. min), Ander, Loiti, Txonan, Maikel.

Hernani > Jon, Belat (Urrretabizkaia, 83. min), Unai, Gorka, Igor, Javier (Olasagasti, 83. min), Ivan, Aner, Iker, Hodei (Portillo, 61. min), Mikel, Josu, Aranguren, Arregi.

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Zapore gaziarekin erretiratu ziren zapatuan Mojategira gerturatu ziren futbol zaleak –eta asko izan ziren–. Norgehiagoka osoan markagailuan aurretik joan eta gero, luzapenean berdintzeko gauza izan zen Hernani. Eta gainera, ezin da esan merezi ez zutenik, Mondrak besteko merituak egin zituzten-eta partiduan etekinen bat eskuratzeko.

ORDEN HANDIZ

Lehen zatian parean izan ziren indarrak. Mondrak kontraerasoan jokatzearabaki zuen, aurrelariak azkar mugituta min egin asmoz. Baina, Herizek partidua hasi eta berehala hartu zuen min, ostikada ederra jasota, eta Gorbobilek Aranbarri zelairatu zuen.



PASEA EMATEN Ander Bereziartua Hernaniko kontrarioen aurrean ezker hankarekin pasea ematen.

XABIER URTZELAI

Hain zuzen ere, jokalar horrek eskuin hegaletik egindako erdiraketa ederra buruz errematatu egin zuen Iker Lopezek gola. Muruak Lopezek besteko gogoa jartzen du, baina azkenaldian biz-

karra eman dio zorteak; ate aurrean huts egindako gol aukera izan zen adibide garbia.

Hala, Mondrak ez zuen kolpe erabakigarria ematen jakin, eta bigarren zatian gogotik ordain-

du zuen hori. Arrasatekoak atzen sartu ziren azken 25 minutuetan, eta baloi geldiko jokaldietan hainbat abisu eman eta gero, luzapenean egin zuen Hernanik berdinetaren gola.

PREFERENTE MAILA > UDA-IDIAZABAL

Etxeko lehenengo garaipena UDarentzat

Laugarren jardunaldia jokatu da aste bukaeran; Idiazabalen aurka hiru puntu eskuratu zituzten Igor Arenazaren mutilek zapatuan

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABALETA Etxekoen aurrean lehenengo garaipena lortu zuten Igor Arenazaren mutilek zapatuan. Idiazabalen aurkako lehian, etxeko taldea gehiago izan zen; hala ere, Aretxabaletaek ez zuten joko ikusgarririk egin.

Lehenengo zatian nabaritu zen etxekoen nagusitasuna. UDAko jokalariek gola bilatu gura izan zuten lehenengo minututik. Eskuin hegalean Iker Oruetaren jokoa aprobetxatu guran, hainbat kontraeraso egin zituzten. Lehenengo gola 38. minutuan iritsi zen; ezkerraldeetik jaurtitako falta baten ondoren, baloia Iban Astolak jaurti eta sareetan sartu zuen. Hala, 1-0ekoarekin, iritsi ziren atsedenera Ibarren.

Bigarren gola azkar etorri zen; 10. minutuan, Imanolek eskuineko hegaletik egindako barneratze baten ondoren, baloia erdiratu eta Espinosak gola egin zuen.

AZKENEAN, SUFRITU EGIN ZUTEN

Partidua erabakita zegoela zirudien; hala ere, epaileak azkeneko txistua jo arte, asko sufritu zuten etxekoek. Idiazabalen gola 40. minutuan iritsi zen. Gero, epaileak hainbat minutu luzatu zuen neurketa; izan ere, jokalarrien lesioak medio, denbora asko galdu zuten zapatuan.

Azkenean, 2-1 amaitu zen lehia eta hiru puntuak Aretxabaletan gelditu ziren; UDAk sei puntu ditu sailkapenean.



OSPAKIZUNA UDAko jokalariek lehenengo gola ospatzen.

ARANTZAZU EZKIBEL

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Ordizia	12	4
2. Berio	9	4
3. Mondra	8	4
4. Hernani	8	4
5. Zumaia	7	4
6. Euskalduna	7	4
7. Trintxerpe	6	4
8. UDA	6	4
9. Aloña Mendi	5	4
10. Aurrera	5	4
11. Anaitasuna	4	4
12. Hondarribia	4	4
13. Real Union	4	4
14. Touring	4	4
15. Idiazabal	3	4
16. Zestoa	3	4
17. Vasconia	3	4
18. Eibartarrak	2	4

Emaitzak

Hondarribia-Real Union	2-2
Berio-Vasconia	1-0
Ordizia-Aloña Mendi	4-1
Euskalduna-Zestoa	3-2
UDA-Idiazabal	2-1
Aurrera-Anaitasuna	0-0
Touring-Eibartarrak	2-2
Mondra-Hernani	1-1
Trintxerpe-Zumaia	1-3

Hurrengoak

Zumaia-Real Union	
Vasconia-Hondarribia	
Aloña Mendi-Berio	
Zestoa-Ordizia	
Idiazabal-Euskalduna	
Anaitasuna-UDA	
Eibartarrak-Aurrera	
Hernani-Touring	
Trintxerpe-Mondra	

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA

Roteta-Bergara	3-2
Intxurre-Antzuola	2-2

BIGAREN ERREGIONALA

Anaitasuna-UDA	2-0
Elgeta-Urki	4-2
Eibartarrak-Mondra	1-0
Gazteak-BTLS	3-0

EMAKUMEZKOAK

Mondra-Bergara	5-2
BTLS-Arizmendi B	8-0
Arizmendi-Anaitasuna	1-3

OHOREZKO GAZTEAK

Bergara-Burumendi	1-2
Anaitasuna-Mondra	5-1
Aloña Mendi-Egoibar	2-2
UDA-Beasain	4-1

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK

Bergara-Eibartarrak	3-1
---------------------	-----

OHOREZKO KADETEAK

Ordizia-Aloña Mendi	3-1
Sporting de Herrera-Bergara	0-7

LEHENENGO MAILAKO KADETEAK

UDA B-Soraluze	11-1
Arizmendi	atsedena
Arrasate-Bergara B	6-0

KADETE TXIKI

Eibartarrak B-Arrasate	3-6
------------------------	-----

KADETE NESKAK, F11

Aloña Mendi B-Eibar-Eibartarrak	0-3
Arizmendi-Zumaia	3-2

KADETE NESKAK, F8

Bergara-Lagun Onak	1-4
--------------------	-----



LORTU DUGUNAREN SEINALE



Asko da egiteko duguna
baina 10 urte
hauetako emaitzak
begi bistakoak dira

ESKERRIK ASKO
LANA EUSKALDUNTZEKO
DINAMIKAN MURGILDUTA
ZAUDETEN GUZTIOI



JARDUNALDIA

MOTIBAZIOA eta HIZKUNTZA
NORMALIZAZIOA

NOIZ: 2007ko URRIAK 9

LEKUA: Gandiaga Topagunea. ARANTZAZU. OÑATI

IZEN EMATEA: www.emun.com/10urte/jardunaldia

OSPAKIZUN EKITALDIA

ELKARREKIN BIDEA EGITEN...

NOIZ: 2007ko URRIAK 24

LEKUA: Amaia Antzokia. ARRASATE

ORDUA: 17:30



EMUN

LANA EUSKALDUNTZEKO
KOOPERATIBA

Informazio gehiago: www.emun.com/10urte
www.lantalan.com

iAsteartea



iAsteazkena



iOsteguna



iOstirala



iLarunbata



Konekta zaitez kutxanet-era
eta eskura ezazu
iPod 80 GB bat egunero.

Irailaren 6tik urriaren 10era bitarte, kutxanetera eguneko lehen konexioa egiterakoan, **iPod 80 GB** eskura dezakezu.

Irabazi kutxanetekin eta jardun **kutxa**ko zure bulegoarekin eguneroko 24 orduz, urteko 365 egunez.

Sustapenaren oinarriak ikusteko: www.kutxa.net

kutxa^{net}

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 kutxa

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Txapelketako lehenengo norgehiagoka galdu zuen Bergarak

Donostiako Egia taldearen aurka hasi zuen liga Josetxo Muniategiren taldeak

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Okerreko hankarekin hasi zuen Bergarako eskubaloia taldeak, Euskadiko txapelketako ibilbidea. Zapatuan jokatu zuen lehen jardunaldia Donostiako Egia Servi Chap taldearen aurka, eta galdu egin zuten bergararrek.

ERRITMO BIZIA

Bergara taldeko entrenatzaileak aurreratu moduan, norgehiagokak erritmo bizia izan zuen, hasieratik bukaera arte.

Labegaraietan jokatu lehiako lehenengo sei minutuetan, berdintasuna izan zen nagusi. Edozelan ere, Bergarak, erasoan egindako bi faltak aprobetxatu zituen Egia, kontraerasoan errenta hartzeko: 4-8. Une hartan, Josetxo Muniategi hutsarte eskatu zuen. Tarten haren ondorengo bi jokaldietan, Bergarak erasoan baloia galdu zuen; hala, donostiarrek, berriro kontra-



JAURTIKETA Irudian, Bergarako Iñaki Manuel, erasoko jokaldian; zapatuan, sei gol egin zituen.

JOSETXO ARANZABAL

BERGARA

26-34

EGIA

Bergara > Jon, Uribe, Ugalde, Ruben (4), Iñaki (1), Plazaola, Odei (2), Iñaki (6), Larrañaga, Pozo, Znguitu, Unai (6), Ioritz eta Josu (3).

Egia > Sistiaga, Martin (7), Galparsoro (1), Zubizarreta (8), Kaieireandine (1), Urola (3), Artetxe (10), Amigo (2), Etxeberria (1), Murke, Cuberos, Olano, Gorbeia (1) eta Artetxe.

Golak bost minuturo > 3-4, 4-7, 5-11, 7-13, 10-16, 11-17. Atsedena. 14-19, 16-22, 17-16, 19-27, 24-31, 26-34.

rasoen bidez, tartea, sei golera zabaldu zuen: 4-10. Lehenengo zatiko azken bost minutuetan, etxeko atezainak geldiketa onak egin arren, Egia abantailarekin iritsi zen atsedenera: 11-16.

AUKERA BARIK

Bigarren zatian, Egia taldeak abantaila mantendu egin zuen. Edozelan ere, garaipena eskuratzeko aukera gutxi izan arren, etxeko taldeak intentsitate berdinarekin jokatu zuen.

BASAURI-FORD MUGARRI

Arrasatek puntu bat eskuratu zuen Basaurin

Berdinketarekin hasi du Arrasatek denboraldia: Basaurin, etxetik kanpo, 24-24 berdindu zuten zapatuan mondragoetarrek.

Partida gaizki hasi zen arrasaterentzat; lehenengo minutuetan urduri jokatu zuten eta, hala, 5-2 aurretik jartzea lortu zuen etxeko taldeak. Gero, iratzarri egin ziren arrasatearrak eta lehia berdintzea lortu zuten: 8-8. Handik aurrera, lehia berdindua izan zen. Atsedenean, markagailuak 11-11 erakusten zuen. Bigarren zatian, Arrasatekoak irabazteko asmoz irten ziren kantxara, baina, etxetik kanpo irabaztea zaila izaten da. Hala, Ford Mugarrik ezin izan zuen erritmoa mantendu eta izan zituzten kaleratzeak medio, ez ziren markagailuan gailendu.

ERRUGBIA > DENBORALDI-AURREA

Beteranoek bakarrik irabazi zuten lagunartekoa



JOKOAN Irudian, nagusien partiduko une bat.

XABIER URZELAI

Beteranoek goizean jokatu zuten Mojategin; arratsaldean, neskak eta nagusiak aritu ziren eta biek hala biek galdu zituzten lehiak

A.E. > ARRASATE

Goiz eta arratsalde aritu ziren errugbian zapatuan Mojategin; goizean, Herensugeak talde beteteranoak 7-5 irabazi zuen La Rioja taldearen aurka. Arratsaldean, berriz, lehenengo neskek eta gero nagusiek galdu egin zuten Durangoko taldeen kontra.

NAGUSIENA, TALDE SENDOA

Arratsaldean, Durangok 3-27 hartu zuen mendean Arrasate. Lehia hasieratik jarri zitzaizen etxekoei maldan gora; lehenengo minutuetan 0-5eko partziala izan zuten aurka. Gero, markagailua zertxobait txukuntzea lortu zuten (3-5), baina, handik aurrera ez zuten lortu beste entsegurik egitea arrasatearrek.

Hala ere, arrasatearrek irudi ona eman zuten etxekoen aurrean. Talde sendoa direla erakutsi zuten eta joko ona egin

zuten; batez ere, plakatze onak egin zituzten. Baina, aurrealdeak egin zuen huts zapatuko zein-gehiagokan.

Arrasateko entrenatzailea gustura zegoen taldearen lanarekin. Taldeak teknikoki lan ona egin zuela adierazi zuen, baina, onartu zuen fisikoki hobetu beharra daukatela.

IKUSLE ASKO NESKEN LEHIAN

Mojategira zale asko joan zen zapatuan errugbiko partidua ikustera. Batez ere, nesken partidua izan zuen jarraipen handiena. Zaleen laguntza izan arren, Mikel Kerexetak eta Igor Erañak zuzentzen duten taldeak galdu egin zuen Durangoren aurka.

Zapatuko lehiak lagunartekoak izan ziren; liga oraindik hasi gabe dute. Nagusiek urriaren 21ean hasiko dute liga Getxoren aurka, haien etxean.

Aitor Mendizabal pilotari antzuolarra AEBetako San Francisco hirian izan da Euskal Pilota

Munduko txapelketa jokatzen. Aurtengo denboraldi bikaina borobiltzeko modua izan da

euskal selekzioarekin jokatzea; izan ere, aurtan, Elgetako txapelketa, Gipuzkoako txapelke-

ta, Euskal liga eta beste hainbat txapelketa irabazi ditu antzuolako pilotariak.

Aitor Mendizabal > Pilotaria

"Maila handiko bikotea izango dut DV sarian; gainera, zerrenda buru gaude"

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

San Franciscon irabazitako txapela eta domina ekarri ditu Aitor Mendizabalek hitzordura. Iraila erdialdean izan da antzuolarra AEBetan, euskal selekzioarekin Euskal Pilota Munduko Txapelketa jokatzen. Mexikoren aurka lehiatu ziren finalean; eta, hasieran urduri aritu ziren arren, erraz nagusitu ziren.

Lehenengo zorionak. Nolako izan da San Franciscoko txapelketa?

Oso ondo bili gara. Amateur mailan sei herrialde ezberdinetako pilotariak aritu ginen: Txile, Estatu Batuak, Venezuela, Bolivia, Mexiko eta gu. Bi taldeetan banatuta egon ginen; talde bakoitzean denek denek aurka jokatu genuen. Guk bi partiduak irabazi genituen eta finalerdia beste taldeko bigarrenaren aurka jokatu genuen.

Finala Mexikoren kontra izan zen.

Bai, nahiko erraz irabazi genuen. Hala ere, hasiera txarra izan zen: 4-0 galtzen hasi ginen-eta. Orduan, larri jarri ginen bai Urrutikoetxea bikoteakidea eta bai ni. Urrutikoetxea, ni bezala aurrelaria da, baina, eskuetako minarekin zebilen eta berak atzean jokatu zuen eta nik aurrean. Gero, ondo dominatu genuen lehia.

Nolako maila erakutsi dute beste herrialdeetako pilotariak?

Herrien arteko aldea izugarria da; adibidez, Mexikokoek pilotan asko egiten dutela nabaritu da. Baina, pilota ezberdina

erabiltzen dute; handiagoak erabiltzen omen dituzte. Beste herrietako pilotariei nabaritzen zaie pilotan badakitela, baina, erritmo eta indar pixka bat sartuz gero, galdu egiten dira.

Noiz jakin zenuen munduko txapelketa jokatzeo aukeratu izan zinela?

Aurretik, zortzi pilotari aritu ginen entrenamenduak egiten; gero, txapelketa baino hilabete lehenago deitu egin ziguten aukeratuak ginen edo ez esateko. Nirekin batera joan diren beste biak bizkaitarrak dira: Jon Landaburu eta Mikel Urrutikoetxea. Hiruen artean jokatu dugu txapelketa, txandaka. Ligaxkako lehenengo partidua nik jokatu nuen, hurrengo biak besteek jokatu zuten eta finalerdia eta finala ere nik jokatu nituen.

San Franciscon zaletasun handia dagoela nabaritu duzu?

Euskal etxean pilotalekua dute, hortaz, han ibiltzen dira haurrak jolasean: hemengo pilotariak ere joan izan dira hango-erakustera. Zaletasuna bada-goela ikusten da.

Nolako bizimodua egin duzue San Franciscon?

Hotel baten egon ginen; handik bi minutura dago Euskal Etxea, hortaz, han egiten genuen eguneroko bizimodua. Euskal etxean bazkaldu eta afaldu egiten genuen.

Txapelketako partidu guztiak hango pilotalekuan jokatu ziren. Euskal Etxean hemendik joandako lagun mordoa dago; askok



Mendizabal San Franciscon irabazitako txapela eta dominarekin Bergarako pilotalekuan.

ARANTZAZU EZKIBEL

euskaraz egiten dute, nagusiek batez ere. Oso gustura ibili dira, pilotan jokatzen gurekin. Pilotalekua bete egiten zen, batez ere txapelketako azken egunetan.

Datorren urtean, berriro joate prest zaude, beraz.

Txilen izango da; ea deitzen gaituzten!

Orain, DV txapelketa jokatzeo hautatua izan zara.

Aurtan promesa mailako azkeneko urtea daukat, baina, handienekin jarri naute. Elgetako txapelketa irabazi izanak bere eragina izango zuen; gainera, Jauregirekin (Soraluze) egingo dut bikote. Maila handiko pilotaria da, 24 urte dauzka. Ez nuen uste horrelako bikote ona jarriko zidatenik. Gainera, taldeko buru jarri gaituzte; final laurdenetan sartuko garela esan gura du horrek. Hala, azaroaren 24an

jokatuko dugu txapelketako lehenengo partidua.

Orain, gainera, herriko elkartera itzuli zara.

Bai, azken urtean Eskoriatzako taldean jokatu dut eta aurtan, berriro ere Antzuolara itzuli naiz. Xabi Biteri eta Josu Agirre izango dira taldekideak; eurekin jokatuko dut Gipuzkoako txapelketa, 2. mailan. Añorgaren aurka aritu gara aste bukaera honetan; aurreko bi partiduak irabazi egin ditugu. Biterirekin jokatzen dudana lehenengo aldia da; gure helburua, txapelketa polita egitea da.

Aurtengoa urte borobila izan da zuretzat.

Oso gustura nago egindako lanarekin, txapel asko irabazi ditut: Elgetako lau terdikoak, Gipuzkoako txapelketa, Euskal liga ere bai, gero, herrietako txapelketetan, La Pueblan, Aretan, Zaldibarren, Baque txapelketan... hainbat txapelketetan nagusitu naiz.

Hasi berri den denboraldia nola ikusten duzu?

Maila gogorragoa izango da, nagusietan arituko naiz-eta. Presio handiagoa izango dut; uste dut, Elgetan, txapeldun izatearen presioa nabaritutako dudala.

Zale gutxi baina lehia politak ikusi ziren zapatuan Mikel Deuna sariko finalerdietan

Lehia politak jokatu zituzten zapatuan Mikel Deuna sariko finalerdietako pilotariak. Lehenengo finalerdian gazte mailako Oiarzabal eta Arzelus, Iriondo eta Olalderen aurka lehiatu ziren. Finalerako txartela Iriondo eta Olaldek lortu zuten, 15-22 irabazita; gainera partidu polita jokatu zuten. Finaleko bigarren bikotea Zaramagako Rodriguez eta Perez izango dira; horiek 22-12 irabazi zieten Barberia eta Zubiriari. Ondoren, nagusien mailako finalerdiak hasi ziren. Lehenengo lehia Antzuolako eta Bergarako Mendizabal eta Gutierrezek galdu egin zuten Irurritako Urtaşun eta Arraztoarekin. Lehia hartan, Irurritako Arraztoak aipatzeko lana egin zuen. Hala, 16-22 nagusitu ziren. Ondoren, azkeneko lehia jokatu zen; Gonzalez eta Aturiak 11-22 irabazi zuten Atxotegi eta Jauregiren aurka. Soraluzeko Juaregik lan txukuna egin zuen Zubikoan, baina, azkenean finalerako txartel gabe geratu zen. Aloña Mendiko pilota sailekoek adierazi dutenez, Oñatiko zale gutxi joan zen Zubikoa kiroldegiko pilotalekura; hori dela-eta, datorren astean jokatuko diren finalak ikustera joateko jendea animatu gura dute. Finalak zapatuan izango dira, gaueko 22:30etan Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan.



Olalde, Iriondo, Romaratezabala, Arzelus, Oiarzabal eta Bengoa.

M.B.

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> JAIEN KRONIKA

San Migel Jaiak ospatu dituzte asteburuan Aretxabaletan > 22



> BERTSOAK

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako kanporaketa > 24



> BERTSO-RAP

Egubakoitzean estreinatu zuten Arizmendikoeek obra > 24



> FILM LABURRAK

Sari banaketa egin zuten egubakoitzean Agorrosinen > 24



KLASIKOA Auto klasikoaren erakusketa egin zuten atzo txosna eta Unibertsitate inguruan.

JOSETXO ARANZABAL

SAN MIGUEL JAIK

Jaitsi da Txantxikua!

NIÑO COSTRINI

Zirkua, umorea eta akrobaziak batzen dituen ikuskizunak arrakasta lortu zuen zapatuan

KONTZERTUAK

Zapatuan rock eta punk doinuak egon ziren txosnetan, eta 'Argi Beltza' ikuskizuna plazan

EDURNE BURGAÑA > OÑATI

San Migel jaietan murgilduta eman dute asteburua oñatiarrek. Egubakoitzean hasi ziren festak, eta datorren asteburuan jarraituko dute. Giro ederrean pasa dute asteburua herritarrek. Egitaraua zabala izan da, gustu guztiak asetzeko modukoa.

Egubakoitzean Foru Enparantzan umeendako ikuskizuna antolatu zuten: Poxpolo eta Mokolo pailazoak. Ume mordo bat egon zen bertan eta barre algaraka ibili ziren.

Txantxikuaren jaitsiera egin zuten gero: 20:00etan, txosnagunean txupinazoa jo zuten, eta gero Txan-

txikua jaitsi zen. Jende piloak ikusi zuen jaitsiera, eta ondorengo txarangaekin ere dantzan ibili ziren: giro ederra lortu zuten guztien artean.

PUTZ EGINEZ

Danborrada nagusia ere egin zuten egun horretan: urtero legez, plaza beteta egon zen. Bestalde, Unibertsitateko Etorbidean borondatezko alkoholemia kontrola egin zuten: jende asko ibili zen putz egiten, eta ia guztiek positibo ematen zuten. Alkohol tasa ematearekin batera, adina eta ea autoa hartu behar zenuen galdetzen

(22. orrialdean jarraitzen du)

Zapatuan eta atzo ere, jai giroan murgilduta

(21. orrialdetik dator)

zuten bertan zeudenek. Zapatuan, Etxaluzen haur parkea jarri zuten: puzgarria, ludoteka, zezen mekanikoa eta Santa Fe trenean ibiltzeko aukera eduki zuten txikienek. Ume mordo bat ibili zen gurasoek lagunduta. Arratsaldean, Niño Costriniren ikuskizunak aho zabalik utzi zituen herritarrak: zahar eta gazte bildu ziren Foru Enparantzan zirkoa, umorea eta akrobaziak batzen dituen argentinarra ikusteko.

Bailarako txupa belzdunak Oñatiko txosnagunean bildu ziren punk-rock kontzertuan: Peter and The Test Tube Babies, Chelsea, Golpe de Estado, Never Surrender eta Travis Bickle taldeek jarri zuten musika. Beste entzule mota bat Foru Enparantzan egon zen *Argi Beltz* ikuskizuna entzuten. Tirri Tarra, Ganbara Abesbatzak eta Sotto Voce orkestrak elkarlanean egindako emanaldia da: musika fusio berezia egiten dute.

Domekan, 12:00etatik 18:00etara auto klasikoek erakusketa egon zen txosna eta Unibertsitate inguruan. Antolatu duten lehengo aldia izan da eta leku ezberdinetatik etorritako autoek ikusmin ikaragarria sortu zuten. Adin guztietako jendea ibili zen autoen artean kuxkuxean.



Egubakoitzean nagusien danborrada egin zuten.

JOSETXO ARANZABAL



Never Surrender taldeak zapatuan jo zuen txosnagunean.

JOSETXO ARANZABAL



Etxaluzen haur parkea jarri zuten; irudian, zezen mekanikoa.

JOSETXO ARANZABAL

SAN MIGEL JAIK ARETXABALETAN > KRONIKA

Euskal giroa izan da nagusi asteburuan Aretxabaletako San Migel jaietan

Eusko diskoteka, produktu biologikoen azoka eta artisau feria, txalaparta, herri kirolak eta beste hainbat 'euskal ekimen' eduki dituzte

E. B. > ARETXABALETA

Egubakoitzean hasi ziren San Migel jaiak Aretxabaletan, eta atzo amaitu. Udal jai batzordeak, Loramendi dantza taldearen, Loramendi euskara elkartearen eta Arlutz xake taldearen laguntzarekin egitarau zabala antolatu du: Euskal giroa izan da nagusi hiru egunotan.

Buruhandi eta txistulariekin hasi zituzten jaiak aretxabaletarrekin egubakoitzean. Gero, eusko diskoteka egin zuten Herriko Plazan.

Zapatukoia izan zen egitarau zabalena: XIII. produktu biologikoen azoka eta artisau feria egin zuten Durana kalean. 10:00etan



AIZKOLARIK Atzo aizkolariek eta harri-jasotzaileek erakustaldia egin zuten Herriko plazan.

EDURNE BURGAÑA

hasi eta 14:00ak aldera arte iraun zuten, eta jende asko ibili zen postuen artean. Ordu berean, Pagaldaixenean, Mitarte kalean, talo-

ak jateko aukera egon zen: hamaketakoa egiteko aproposa. Txalaparta ere entzun ahal izan zen, eta Etxarriko zanpantzarrak ari-

tu ziren eguerdian. Baita Bilbotik etorritako gaitariak ere. Herri bazkaria egin zuten Herriko plazan. Bertsolariak, umeen

txokoak, koadrilendako jolasak, eta beste hainbat ekimen egin zituzten giroa alaitzeko. Gainera, bazkaldu bitartean, Donostia kantuz taldea aritu zen. Bazkalostean berriz, herri kirolak egin zituzten.

Iturrigorri pilotalekuan Aukeran dantza taldearen Bideak ikuskizuna egon zen, eta gauean, borondatezko alkoholemia kontrolak egin zituzten Mitarte kalean.

AZKEN EGUNA, ATZO

Atzo euskal jai giroak jarraitu zuen. 13:00etan hasita, herri kirolen ikuskizuna egon zen Herriko Plazan. Harri-jasotzaileak eta aizkolariek aritu ziren aretxabaletarren aurrean: aizkolarien artean, gainera, bi emakumezko, eta zortzi urtetako mutikotxoak.

Jaiak amaitzeko, batetik, mus eta xake txapelketa jokatu zituzten, eta bestetik Iruñako alde zaharreko erraldoiak etorri ziren. Gainera, Aretxabaleta Abesbatzak kontzertua eman zuten Leizarra musika eskolako musikariek lagunduta. Iturrigorri frontoian izan zen emanaldia.



Zorionak irabazleoi!

ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunen artean zozketatu ditugun
kilometroetako 10 kamiseta, 10 poltsa eta 10 CD gordetzeko poltsa irabazleak honakoak dira

Kilometroetako 10 kamiseten irabazleak

- Juan Ramon Arriolabengoa Unzueta (Arrasate)
- Jose Errasti Arana (Aretxabaleta)
- Kontxi Korkostegi Saizar (Bergara)
- Amaia Bikuña Zugasti (Oñati)
- Felix Kortabarria (Elgeta)
- Jaione Garzia Izurrategi (Aretxabaleta)
- Francisca Ibabe Zumelaga (Oñati)
- Miren Iraeta (Oñati)
- Jose Antonio Igarza Lizarralde (Antzuola)
- Felix Eguren Urtaza (Bergara)

Kilometroetako 10 poltsen irabazleak

- Mikel Sagasta Ortubai (Arrasate)
- Ander Karasatorre Ezenarro (Bergara)
- Urtzi Esnal Calero (Eskoriatza)
- Juan Jose Elorriaga Olañeta (Elgeta)
- Urbano Bengoa Arkauz (Aramaio)
- Angel Elgoro Aranberri (Bergara)
- Maialen Egues Ergialde (Arrasate)
- Urtzi Berasaluze Velez de Mendizabal (Arrasate)
- Maria Etxebarria Altuna (Aramaio)
- Juan Gordo Mendizabal (Oñati)

Kilometroetako 10 poltsa CD-ak gordetzeko irabazleak

- Ibon Bartolome Zubizarreta (Aretxabaleta)
- Jose Beni Artolazabal Barrenetxea (Antzuola)
- Isidora Barandiaran Larrañaga (Eskoriatza)
- M. Karmen Aiastui Uribarren (Aramaio)
- M. Jesus Iriarte Zilaurren (Aretxabaleta)
- Esther Goikolea Zabala (Arrasate)
- Jabier Egin Ugarte (Bergara)
- Jose Antonio Elexpuru Unzueta (Bergara)
- Bixente Elgero Madinabeitia (Oñati)
- Mertxe Zabaleta Pierruegues (Arrasate)

Sariak jasotzeko pasa zaitezte honako egoitzetatik,
urriak 1etik 4ra 09:00-13:00 / 14:30-18:30

Bergara, Antzuola eta Elgetakoak:
GOIENKARIA
Irizar Jauregia – Barrenkale 33
BERGARA

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Oñatikoak:
GOIENA
Nafarroa Etorbidea 2 – 1. Solairua – 5. Atea (Saiolan eraikina)
ARRASATE

Eta urtean zehar ere, ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpideduna izateagatik,
astero hainbat **opari** jaso ahal izango dituzu.

HURRENGO ASTEKO SARIAK (urriak 8)

ELGETAKO ESPALOIAN urriaren 11n izango den
PAGAGNINI YLLANA taldearen antzezlanerako lau sarrera
(irabazle bakoitzari bi emango zaizkio).

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:

18 euro
2007 bukaera arte.

BERTSOLARITZA > GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Ainhoa Agirreazaldegi elgetarra, lan txukunda eginda, hirugarren

Hurrengo faserako txartela Aitor Sarriegik eskuratu zuen 283 punturekin

Arrasateko Kultureteko Areto Nagusia bete egin zen; jendea kanpoan geratu zen

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lau kanporaketa jokatu dira aste bukaeran, Arrasaten horietako bat. Kultureteko Areto Nagusia bete egin zuten bertso zaleek: batzuk sarrera barik geratu, eta ezin izan ziren sartu. Hala ere, kanpoan bozgorailuan jarri zuten, eta bertan zeudenek saioa jarraitu ahal izan zuten. Taula gainean: Aitor Sarriegi, Asier Iriondo, Iker Goñi, Aitzol Barandiaran eta Ander Lizarralderekin batera ibarreko ordezkari Ainhoa Agirreazaldegi elgetarra.

LANAK

Jon Zaldua gai emaleak bertsolariak aurkeztu eta agurrean Arrasateko hainbat kontu eta entzuterako joandako lagunak aipatu zituten. Eskaintako saioa orokorrean maila altukoa izan zen; fin aritu ziren bertsolariak.



AGIRREAZALDEGI Ainhoa Agirreazaldegi bertsoan, eta atzean, pentsakor, atzoko irabazle Aitor Sarriegi.

JOSETXO ARANZABAL

Zortziko handiko ofiziotako ariketarekin ekin zioten lan puntuagarriari. Saioa gogor hasi zen, eta landutako gaien artean, txapelketa bera egon zen. Ideia freskoak erabili zituzten.

Zortziko txikian doinuak aukera ematen duenez, arin, umorea tartekatuz jardun zuten. Hamarreko txikiaren txanda izan zen gero eta alde serioa landu arren bukaera ingeniosoa egon ziren.

KARTZELAKOA

Gainontzeko bertsolariak kartzelara joan zirenean Ander Lizarraldekin ekin zion bakarkako lanari. Gero, banan-banan lan berbera egin zuten gainontzeko-

ek ere. Hiru bertso osatzeko "Luzaroan egon zara deitzera ausartu gabe, eta orain deitzeko teklari jo diozu" gaia eman zien Jon Zalduak.

HURRENGO HITZORDUAK

Lan puntuagarria amaitu eta agurrak bota ostean eman zuten puntuaketaren berri. Aitor Sarriegi izan zen lehenengoa 283 punturekin eta zuzenean sailkatu zen hurrengo faserako. Gai-ontzekoak datorren aste emaitzen zain egon beharko dute orain.

Ainhoa Agirreazaldegik hirugarren egin zuen. Saio txukuna eskaini zuen eta "gustura" geratu zen elgetarra.

Datorren aste bukaeran, zapatuan, ibarreko bi bertsolari jardungo dute txapelketan: Jokin Labaien arrasatearrak Getarian eta Eñaut Uriarte bergararrak Elgetako Espaloian. Bi saioak 18:00etan izango dira. Labaienek Andoni Otamendi, Bixente Gorostidi, Oier Aizpurua, Jose Joakin Aizpurua eta Aitor Urbieta izango ditu kantu lagun; Uriartek Nahikari Gabilondo, Xabi Astigarraga, Alaia Martin, Egoitz Alkorta eta Manu Goigana.

Antolatzaileek orain arteko saioetara jende asko bildu dela eta leku batzuetan bertsozaleak kanpoak geratu direla ikusita entzuleei eskatu diete saioetara denboraz joateko.



JOSETXO ARANZABAL

Egubakoitzean estreinatzen zuten 'Bertso-rap' Amaia antzokian

Arizmendiko antzerki taldeak egubakoitzean estreinatzen zuten Bertso-rap antzezlanaren Amaia antzokian. 150 bat lagun joan ziren obra ikustera, eta antolatzaileek "gustura" daudela azaldu dute. "Oso obra polita da, eta joandako jende kopuruarekin konforme egon behar gara, baina pena bat da egindako ahalegina kontuan ez edukitzea", adierazi du Edurne Balzategi Arizmendiko komunikazio arduradunak. Hasi aurretik, gidoiari, itzultzaileari eta zuzendariari txapel bana oparitu zieten oroigarri gisa.

FILM LABURREN LEHIAKETA > SARI BANAKETA

Mikel Calvoren 'Honostruz' lanak lortu du bergarako film labur onenaren saria

Egubakoitzean izan zen sari banaketa Agorrosinen; aurkeztutako sei lanak ikusi ahal izan ziren sarien aurretik

izan zen *La cita* filmarekin, eta hirugarren postuan geratu zen Jon Unamuno Lekuona *Ohorearen zaporea* obragatik.

KIROL ARGAZKIAK

Sari gehiago ere banatu zituzten egubakoitzean: kirol argazki lehiaketakoak. Koloreetan aterakoan atalean, Benito Cantero bergararrak irabazi zuen lehenengo saria *Motokross Bergaran* argazkiarekin, bigarrena Javier Fernandez Ferreras berangarra izan zen *Crawl* argazkiarekin, eta hirugarren saria Joseba Leturia bergararrak jaso zuen *Portalet* argazkiarekin.

Zuri-beltzekoan atalean, argazki onena Benito Canteroren *Unai Aitzur* izan zen, bigarrena Asier Castro bilbotarraren *Urdira*, eta hirugarrena Iosu Garai legazpiarraren *Aitz*.

E. B. > BERGARA

Egubakoitzean Bergarako film laburren lehiaketako sari banaketa egin zuten Agorrosinen. 19:00etan izan zen hitzordua. Lehendabizi, lehiaketara aurkeztutako sei lanak proiektatu zituzten, eta gero, irabazleen izenak eman.

Mikel Calvo Abarzuzak lortu zuen lehenengo saria *Honostruz* lanarekin. Bigarren sailkatua, Jose Requejo Rodriguez



III. UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENKO GOIENKARIA LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak

Hauek dira irabazleak!



1
EKAITZAREN OSTEAN BAREALDIA/Isabel Kirze.
Komunikabideek askotan erakutsi ziguten irudia beste modu batean aurkeztu digu egileak. Kon txako barandaz baliatu dira enkuadre ezberdin bat egiteko.



2
EUSKAL GAZTA / Ane Lopez.
Udan ateratzen ditugun argazki sinpatiko horietako bat da bigarren saria. Sei lagunek hartu dute esku erretratuan, formak zainduta, irudi fresko bat lortuaz. Askotan, ez da gehiago behar.



3
GINCHO / Aritz Murgia.
Arrasateko Aritz Murgiak ilunabarrean egindako erretratua aurkeztu du. Irudi polita da, lasaitasuna transmititzen duena. Tonoak saturatuta efektu polita lortu du Murgia.

136 LEHIAKIDE

Lehiaketan 136 lagunek hartu dute parte. Guztira, baina, 513 bat argazki jaso ditugu, lehiakide bakoitzak bost argazki bidali ahal zituelako. Iaz 300 erretratu jaso bagenituen, pentsatu aurten zelako lana izan dugun. Gainera, azkeneko egunean bertan 50 erretratu jaso genituen. Hala ere, gustura egindako lana izan da, baina ez duzue batere erraztasunik eman; buelta mordoa eman dizkiogu argazki bakoitzari, asko dira eta saria merezi dutenak. Batzuk freskoak direlako, besteak barrea eragiten dutelako; teknika

aldetik zainduta daudenak jaso ditugu, eta baita erretratua ateratzean ederto zebiltzala erakusten dutenak ere. Argazki horiek guztiek dute gurean lekua, horrenbestez, datorren urtean ere animatu!!!


EPAIMAHAIA

Goienako eta Bergarako Kiñu argazki dendako kideek osatu dute epaimahaia eta ez da erraza izan hiru saridunak aukeratzea. Saridunek asteen jasoko dute saria. Egubakoitzeko *Goienkaria*-n izango duzue irabazleok ezagutzeko aukera.

Sariak



1. saria: Olympus E-400 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.



2. saria: Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarentzat, Arrasate Bidaiak-en eskutik.



3. saria: Bi pertsonarendako afaria edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea:

 **kutxa**

Laguntzaileak:

 **kiñu**
argazkilariak


ARRASATE BIDAIAK
GURE AMETSA
JATETXEA

 **Goienkaria**
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51

III. UDAKO ARGAZKIEN ASTELEH

Argazki guztiak fotoblog honetan:



HONDARTZAN. Denon jakina da Mutrikun portu berria eraikitzen ari dela. Horrek zenbait irudi bidaltzera bultzatu nau. Mutriku Herriak izan duen ingururik ederrenetako baten isla galtzear du. Bizitza guztian miretsi izan duguna, denok konpartitzen jarrai dezagun. /Argazkia: Gina Tatiana Giraldo /Arrasate




TXINATAR ABERTZALEA. Txinan aterata dago. Hau bai txinatar abertzalea, horrelako pertsonekin nola ez dira izango ba munduaren jabe? /Argazkia: Miriam Urtzelai /Oñati



LLANESEKO KANPINGA. Herrian dagoen kanpingo bakarra itsaslabarrean dago, eta aurten egon diren galernekin gutxi batzuk ausartu dira bertan lo egitera. Begiratu argazkia bestela... /Argazkia: Oihana Ezkurra /Arrasate



GAZTELUGATXE. Bermeon, Gaztelugatxeko eskailerekin askotariko formak hartzen dituzte. /Argazkia: Mikel Aranzabal /Aramaio



LEHOINABAR . Zambiano lwanga National Parkean ateratako argazkia. Lehoinabar bat puku bat (bertako antilope bat) harrapatu ondoren. /Argazkia: Pablo Segovia /Eskoriatza



USOAK. Argazkia Gambiako herri txiki batean egindakoa da. Arraindegiko saltzailea da iruditzen dagoen emakumea. /Argazkia: Paz Gomez /Eskoriatza



PURMAMARKA. Mendebaldean ematen duen arren, iazko abuztuan Purmamarka (Argentina) inguruan ataratako argazkia da. Gora, ta gora, ta gora, noiz bukatu ote da kaktusa? /Argazkia: Miren Arieteleanizbeasko /Aretxabaleta



BIZIKLETAN. Hemen baino zerbitzu handiagoa egiten dute bizikletek beste herri batzuetan. /Argazkia: M^o Carmen Albes /Arrasate



UME JOLASAK. 2007ko udan ateratako argazkia. Pingyao herrian (Txina) ume baten jolasa. /Argazkia: Peio Errasti /Antzuola



HARRIZKO GUDARIAK. Qin Shihuang enperadorearen hilotzaren ondoan enterratutako Terrakotako Gudariak, 7.000 figura baino gehiagoko ejertzitza, tamaina errealean. Xian (Txina). /Argazkia: Nerea San Sebastian /Antzuola



ESTATUAK. Grezia? Erroma? Ez, aurtengo udan Donostiako Zurriola hondartzaren pasealekuan egon den estatua erakustaldi bat da. /Argazkia: Mikel Maidagan /Arrasate



ERAIKUNTZAKO LANGILEA. 2007ko udan, Teni (Tamil Nadu, Hego India); Eraikuntzan lanean gogor diharduen emakume koadrila baten irribarre hau topatu genuen. /Argazkia: Ainhoa Bikuña /Bergara

ENEKO GOIENKARIA LEHIAKETA



www.goiena.net/blogak/argazkiak



EGIPZIOAK. Aurtengo abuztuan ateratako argazkia da. Portugalgo kalatxo txiki bakarti batean. 4 lagun joan ginen oporetan eta bertan agertzen direnak Iban, Maider eta Amaia dira. /Argazkia: Haritz Iñurritegi /Arrasate



EKAITZAREN OSTEAN BAREALDIA. Donostiako Kontxan aterata 2007ko abuztuak 23an. /Argazkia: Isabel Kirze /Arrasate



LHURS LAKUA. Piriniotan ateratako argazkiak. Hiru Errege Mahaian, Lhurs-eko lakutik. /Argazkia: Joannes Mendizabal /Arrasate



TXIKI-TXIKI. Nire ahizpa, edabe magiko bat edan, eta txiki-txiki geratu zitzaigun argazki honetan ikusten den bezala. Eskerrak gero bere onera itzuli zen. /Argazkia: Ane Zuazubiskar



BULTZAKA. Baietz pisako dorrea bota. /Argazkia: Miriam Urtzelai /Oñati



LORE SALTZAILEAK. 2007ko udan; Mysore (Hego India); Mysoreko merkatuan aterata. Benetan bitxia da han dagoen kolore eta usainen nahastea. /Argazkia: Mikel Bayer /Bergara



JATEN. Argazkia Argentinan aterata dago, Lago Rocan. Perito Moreno glaziarra ikustera joan ginen eta begira zelako tipo jatorrarekin elkartu ginen. Echevarria zuen abizena, jatorri euskaldunak zituen. Erretratuan Guanaco izeneko animaliarekin. /Argazkia: Iñaki Kortabarria /Arrasate



JOLASTEN. Oropesan aita eta semea (Asier) tontokeria apur batzuk egiten. /Argazkia: Enrike Urizarren /Arrasate



SAGARDOA. Amazonian (Brasil) ateratako argazkia. Eskuna moduko belero batetik aterata. Bertako landareta agertzen da argazkian. /Argazkia: Belen Aranbarri /Arrasate




ISPILUAN. Aurtengo udan, Jameos del Agua (Lanzarote). Cesar Manriquek diseinaturako ispilu batean Ane, Marga eta Nerea islatzen dira. Ez daude bi aurpegi berdin eta egoera desberdinetan daude. /Argazkia: Jabier Gonzalez /Bergara



ZERAMIKA. Tuniziako herrixka bateko zermika koloretsuak kale ilunean. /Argazkia: Jokin Bengoa /Aretxabaleta

III. UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENKO GOIENKARIA LEHIAKETA

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak



ITZALPEAN. Argazki hau uda honetan degurixan aterata dago. /Argazkia: Joserra Txintxurreta /Oñati



TXIPLI TXAPLA. Haritz eta Oihana agertzen dira Bandiagarako lurraldenaren zeuden ur-jauzietariko batean, fresko fresko. /Argazkia: Iurgi Inda /Arrasate



EZKONGAIK. Ezkongai bikote gazte hau Panaca parke tematikoan zeuden. Hau ere Kolonbiako ardatz kafegilean dago. /Argazkia: Egoitz Arzamendi /Arrasate



BOSTAK ROBAT. Cambrils-en (Catalunya) ateratakoa da, aurtengo udan. Itsasoa oso haserre zauen ta itsas-txoriak hondartzan zeuden, ta gaiñera asko benetan, ta ni ixilik ondora joanintzen ta argazki hau ateranuen egaz ekin zirenean. /Argazkia: Joxe Murguia /Arrasate



ZERUAN KABLE ARTEAN. Abuztuan, Orreagan ateratako argazkia. 16 metroko alturan, Andoni zuhaitz punta batetik beste punta batera pasatzen. Urduritzuna eta emozioa bait ziren bertan. /Argazkia: Julen Mendarozketa /Arrasate



EMAKUME LANPETUA. Indiaren emakumeak lan eta lan gelditu gabe dabil obretan. /Argazkia: Juan Luis Merino /Arrasate



AZOKA. Saisalmeko azoka bizitza eta kolorez beteta dago, Santamasak bezala. /Argazkia: M^a Carmen Pavon /Arrasate



ATSEDENA. Istanbulen pasatako opor labur batzuetako argazkia da hau. Mantel batez apaindutako mahai baten gainean bi sagarrezko te. Lasaitasuna, presarik eza, sinpletasuna islatzen digu irudi honek: hori baita oporretan egotea. /Argazkia: Margari Gorrotategi /Arrasate



DUNETAN JOLASEAN. Marokoko desertuaren hasiera diren dunetan ateratako argazkia. Ilunabarrean, lagun batzuei dromedarioan buelta bat ematera lagun-du ostein dunetan lasai-lasai zeudela atera genien argazkia, eguzkiaren azken izpiak harrapatuz.. /Argazkia: Aimar Elortza /Arrasate



URKULUKO DRAGOIA. Duela urte asko dragoiak irautsi zirela diote, baina Urkulun bat ikusi genuen eta hemen dago frogagiria. /Argazkia: Jessica Amozarrain /Aretxabaleta



MAROKO. Aurtengo udan Marokoko Fes hiriko kurtidura baten ateratako argazkia. Larrua tinte naturala erabiliz tindatzen dihardute. Tindatu ahala etxe batetako teilatuan jartzen zituzten denak lehortzeko. /Argazkia: Garikoitz Iturbe /Aretxabaleta

gazte zerbitzuak

BEKAK

> **Ikasle-egzaituak.** Eusko Jaurlaritza. 2007-2008 ikasturteko garraio gatuak ordaintzeko laguntzak ikasle egzaituentzat. Epea: Urriaren 17a.
> **Aztergai.** Itsasondoko Udala. Arro-bien ustiaketaren ikerketa bat egiteko bekak, herriaren garapenean izan duen garrantzia aztertzeko. Epea: Urriaren 17a.

EKINTZAK

> **Lezo Mountain Bike.** Ibilbidea egin nahi duen edozeinek har dezake parte Mountain bike proba herrikoian, irailaren 30an.
> **Cotiren kontzertua.** Victoria Eugenia Antzokian. Coti artistaren pop-rock kontzertua urriak 10ean izango da, 20:30tan. Sarrerak: Servikutxa, Telekutxa (943 001200) edo interneten www.kutxa.net.

IKASTAROK

> **Barreterapia.** Udako Euskal Unibertsitatea. Barreterapia ikastaroa Eibarren. Azaroaren 10ean, 17an eta 24an (15 ordu). Epea: Urriaren 11a
> **Ipuinak.** Udako Euskal Unibertsitatea. "Ipuinen mekanika: ipuinen azterketa metodo berri bat W. Websteren bilduma arakatu" Data: azaroaren 15, 20, 22, 27 eta 29an. Ordutegia: 16:30etik 17:30era. Hizkuntza: euskara. Epea: Urriaren 11a.
> **"Nola burutu prebentzioa aisialdian" tailerra.** Urtxintza Eskola. Donostiako Udala. Aisialdiko taldetako hezitzaileei, aisialdi ekipamendukotako hezitzaileei (ludotekak, gazte lokalak), kale hezitzaileei eta famili hezitzaileei zuzendutako ikastaroa. Epea: urriaren 12a.
> **Mendiko orientazio GPS bidez.** Gipuzkoako Goi Mendi Eskola. Ikastaroren helburuak: koordenatu desberdinak dituzten mendiko plano eta mapak interpretatzea, naturan GPSa kokapen eta orientazio tresna gisa erabiltzen ikastea. Iraupena: urriaren 20an eta 21ean.

LEHIAKETAK

> **Artea.** Gipuzkoako Arte Elkar-tea. Pintura lehiaketa. Gaia eta formatua libreki izango dira. Epea: Urriaren 1etik 15era arte.
> **'Europar Batasuna Eta Diskriminazio Eza' Lehiaketa Europarra 2007.** Hautagaiak lau gazte eta heldu batek osatutako taldeetan lehiatuko dira. Europar Batasunean diskriminazio ezaren ideia islatu beharko dute poster batean. Epea: irailaren 29a.

LANA

> **Erizainak.** Bergarako Udala. Mizpirualde zaharren egoitzan erizainlanpostu bat betetzeko eta lan-poltsa bat sortzeko oposizio-lehiaketa. Epea: Urriaren 10a.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEEN DAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEEN DAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com
<http://www.goiena.net/sailkatuak>

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEN KOGIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor ditezkeen operazioen erantzukizunik.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Apartamentua prezio eta egoera ezin hobean salgai. Hiru logela, egongela, bi bainu-gela, sukaldea, patio ingeles, sotoa eta garajea. 687 83 97 37.

Arrasate. Etxebizitza salgai. San Andresen. 57 m². Guztiz berritua. Bi logela, egongela, bainu-gela eta sukaldea. Kanpoaldean. 620 15 12 12.

Arrasate. Gorostiza auzoan (Malvinak). 77 m². Guztiz berritua. Hiru logela, egongela, bi bainu-gela, sukaldea, patio ingeles, sotoa eta garajea. 607 72 75 63.

Arrasate. Grupo San Juanen etxebizitza salgai. 60 m², bi logela, komuna, sukaldea eta egongela. Berriztatuta, altzariekin eta bizitzera sartzeko moduan. Ganbara, sotoa eta igogailua. 600 90 76 73 edo 635 71 93 00.

Arrasate. Zigarrolan etxea salgai. Beheko solairua, 48 m². Berritua. 200.000 euro. 665 73 25 74.

Arrasate. Zigarrolan etxebizitza salgai. 53 m². 3 logela, egongela, bainu-gela eta sukaldea. Altzariekin. Guztiz berritua eta oso egoera onean. 615 75 96 36.

Arrasate. Zigarrolan etxebizitza salgai. 81 m². 3 logela, egongela, bainu-gela, sukaldea eta trastelekua. Oso eguzkitsua. Egoera onean. 652 73 22 83.

Bergara. 90 metro koadro. Guztiz berritua. 100 metro koadroko ganbara. Duplexa egiteko aukera. 218.000 euro. 666 70 59 90.

Bergara. Erdialdean. 57 metro koadro. Igogailua eta trastelekua. Prezio interesgarria. 649 63 11 74.

Bergara. Duplex egindako etxebizitza. 2001ekoak. 125 m². Altzaririk gabe, sukalde hornitua. Bi logela (beste bi egiteko aukera), jangela handia, bi bainu-gela, terraza, bi balkoi, gas naturala, igogailua, antena parabolikoa. Garaje plaza itxia (19 m²) aukeran. Zubiaurre kalean. Prezio ona. 699 49 14 14.

Nafarroa. Urederra inguruan. Berriztatuta. Bi solairu ditu. 123 metro koadro. 185.000 euro. 943 76 00 03.

Oñati. Duplexa salgai kultura

etxearen parean. 100 metro koadro. Sukaldea, logela, egongela eta 2 komun. 670 48 32 99.

Oñati. 120 m²-ko duplexa salgai. Herri erdian. Bizitzera sartzeko moduan. Argitsua eta material ederrekin egin. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 420.000 euro. 676 39 36 93.

Oñati. Apartamentua salgai. Erdialdean, Arantzazu kalean. Bi logela, sukalde-egongela, bainu-gela eta trastelekua. Egoera onean. Argitsua. 605 77 46 79.

Oñati. Duplexa salgai kultura etxearen parean. 100 metro koadro. Sukaldea, logela, egongela eta bi komun. Telefonoa: 670 48 32 99.

Pefiscola. Bungalow bat salgai. 948 41 00 79.

102. EROSI

Arrasate etxea erosi nahi du, prezio egokian. 635 70 24 66 edo 606 03 80 18.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan, ikasleentzat. 943 79 33 93.

Bagnères-La Mongie. Apartamentua ematen du errentan neguko denboraldi osorako. 679 76 11 57.

Benidorm. Apartamentua ematen du errentan. Levante hondartzaren lehen erroan. 605 72 13 67.

Bergara. Etxebizitza ematen du errentan, Bolun. 20:00etatik 22:00etara deitu. Telefonoa: 943 76 07 89.

Marina D'or. Etxea ematen du errentan. Bainuetxearen parean eta hondartzaren ondoan. 943 76 23 53 edo 679 74 60 61.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Etxea errentan hartuko nuke. 685 75 41 21.

Arrasate. Arrasateko bikote batek etxebizitza errentan hartuko luke. 13:00etatik 16:00etara bitartean ez deitu. Aitor. 649 19 64 04.

Bergara. Bi araba gazte gara eta errentan hartzeko etxe-

zita behar dugu azaroa baino lehen. Sara. 669 07 48 72 edo 943 76 00 52.

105. ETXEA OSATU

Eskoriatza. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da urri-rik aurrera. Seriotasuna eskatzen da. 656 71 33 96.

Iruñean logela bila nabilen irakaslea naiz. Kurtso osorako. 669 97 91 31.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Zubiaurren, 37 metro koadro. 606 65 97 82.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Ibargarai kalean garajea errentan ematen da. 627 90 74 48.

Bergara. Ibargarai kaleko 17. zenbakian. 15 metro koadro. 626 04 82 24.

Oñati. Garajea errentan Olakua 18an. 659 38 66 29.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Aretxabaleta. Lokala salgai Gorbeia kaleko 2. zenbakian. Guztira 104,60 m², bi solairutan banatuta. 671 42 54 32 edo 943 79 52 78.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da Garagar-tzan. Astean hiru egunetan. 655 72 68 07.

Bergara. Pertsona bat behar da gaztelaniazko klaseak emateko. 629 33 26 34.

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume euskaldu-

na gertu edozein lanetarako. 659 82 75 18.

Arrasate. Paperak eguneratuta dituen emakume adinekoak zaintzeko prest. Etxeko lanetan, sukaldean eta erizaintzan esperientziarekin. Telefonoa: 686 52 15 98.

Arrasate. Paperak eguneratuta dituen neska adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia etxeko lanetan, sukaldean... Erreferentziarekin. 618 93 59 29.

Aste bukaeran lan egingo nuke. 680 62 42 60.

Debagoiena. 22 urteko mutila edozein lan egiteko gertu. 943 78 03 32 edo 687 67 71 83.

Debagoiena. Emakume bat pertsona nagusiak zaintzeko eta etxeak, bulegoak zein tabernak garbitzeko gertu; orduka. 650 67 15 92.

Oñati. Neska gazte bat haurrak zaintzeko prest. 636 07 01 16.

Oñati. Neska gazte euskalduna haurrak zaintzeko prest. 636 07 01 16.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Sei urteko neskatila bati eskola partikularrak etxean emateko norbait behar du; egunean ordu bat. 658 70 73 17.

502. EMAN

Bergara. Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak ematen ditut. 605 74 14 04.

Aretxabaleta. Ingeleseko eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

Bergara. LH edo DBHko eskola partikularrak emateko prest dagoen neska. 675 71 55 56.

6/ MOTORRA

601. SALDU

BMW F 650 GS motorra salgai. 2005eko azarokoa. 4.000 kilometro. ABS Warning. Beltza. 6.600 euro. Telefonoa: 635 71 67 06.

Citroen C4 Coupe beltza salgai. 138 ZP. Diesel. 55.000 km. Estra guztiak. Oso egoera onean. 627 93 55 74.

Hiunday Tucson. 112 zaldi. Diesel. 2 urte eta 24.000 kilometro. Oso egoera onean. 669 54 89 16.

Honda CB 600F motorra salgai. 25.000 km. 4.200 euro. 699 37 15 11.

Opel Astra ISUZU 1700 TD. 114.500 km. Egoera onean. 606 94 35 50 edo 617 13 17 51.

Suzuki GS 500 motorra salgai. Oso egoera onean, 19.000 km, 2003koa. 3.000 euro. Deitu arratsalde. 630 77 50 71.

Suzuki Vitara 1.6 salgai. 92.200 km. Egoera onean. Telefonoa: 665 71 39 94.

Trialeko motorra salgai. Gas-Gas TXT 280. 2004koa. Egoera oso onean. 2.500 euro. Telefonoa: 627 42 63 12.

Volkswagen Golf II GTI, 112 ZP, 1990ekoa, hiru ate, gorria. Enbragea eta distribuzio uha- la (korrea) aldatu berri. Oso egoera onean. 1.200 euro. 699 98 36 71.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Yorkshire txakurra saltzen dit. Bi urte ditu. 616 45 00 20.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Basalurrea salgai Bergara eta Eskoriatzan. Borda bat eraikitzeko oso egokia. 678 72 75 72. Mahai obalatua salgai, luzagarri eta guzti. Neurria: 140x92 zentimetro. 200 euro, negozio- garriak. Deitu telefono honetara: 617 17 15 88.

Mahaia. Egongelako mahai bat salgai. 90x90 neurrikoa. Gerezio-ndoko kolorea dauka eta kristalezkoa da. Berria. 99 euro. 653 72 22 54.

Mendiko bizikleta salgai. Cooler markakoa. Egoera oso onean eta km gutxirekin. Telefonoa: 637 03 41 97.

Pneumatiko-estalkiak saltzen ditut. lau estalki. Eta beste lau hagu (lanta), Speed Line. 14 hazbetekoak. Golf GTI autoarena. Deitu telefono honetara: 686 55 79 82.

Sutarako egurra salgai. Beheko surako prestatua. Bi kamioi. 945 44 51 11.

802. EROSI

Txanponak eta bankuko billete zaharrak erosten ditut. 688 61 85 02.

807. AURKITU

Aretxabaleta. Bizikleta topatu dugu. Umearna da. Telefonoa: 943 79 66 51.

808. BESTELAKOAK

Bergarik Donostiara autobibilean joan-etorria egiteko aukera eskainiko didan norbaitekin bila nabil. Astegunetan, egunero. 697 56 29 18.

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Euskarako irakasleen lan poltsa sortzeko merituen lehiaketa.

Eskaerak aurkezteko azken eguna: urriak 15.

Eskaerak aurkezteko lekua: Leintz Udal Euskaltegia. Nafarroa kalea, 4. Aretxabaleta

Aretxabaleta, 2007ko irailaren 26a.

LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak

IKUS ENTZUNEZKO TEKNIKARIA behar du

Baldintzak:

- Euskaraz jakitea.
- Errealizazio, irudi edo soinu teknikari tituluduna izatea, gutxienez..

Baloratuko da:

- Esperientzia izatea..
- Informatikako programak erabiltzen jakitea.
- Atzerriko hizkuntzak jakitea.
- Goi mailako titulazioa izatea

Interesatuok bidali curriculum, 2007ko urriaren 5a baino lehen, ondoko helbidera: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE edo admi@goiena.com

LAN ESKAINTZA

ESTANPATZAILER lanpostu bat

Baloratuko da:
-FP-II edo antzeko titulua izatea
-Esperientzia estrusio hotzean
-Bergaran edo inguruan bizi izatea

TAILER MEKANIKO rako lanpostu bat

Baloratuko da:
-FP-II edo antzeko titulua izatea
-Esperientzia eta makinak erabiltzen jakitea (tornua, fresa, erosioa, ...)
-Bergaran edo inguruan bizi izatea



Interesatuok bidali curriculum gutun-azalean, lanpostua zehaztuz, 2007ko urriaren 15a baino lehen, ondoko helbidera: **METAGRA – Amilaga 22 – 20570 BERGARA** edo mse@metagra.com

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Baserritarrak
eta larruzko
txupak

San Migelak ospatu ditugu asteburuon; Oñatin, Aretxabaletan eta beste hainbat auzotan izan dira jaiak.

Oñatin, zapatuan, agurafari mordoia izan ziren; **Azpeitiko** eta **Zumaiako** koadrilak, behintzat, Oñatin ibili ziren, mozorro eta guzti. Txosna-gunean, rock kontzertuak izan ziren; inoiz ez ditut hainbeste larruzko txupa batera ikusi! Jendeak ondo pasatu zuen **San Migelak** ospatuz eta **San Migelak** edanez. Gainera, bai Oñatin eta bai Aretxabaletan alkoholemia-kontrol boluntarioak

"Aretxabaletan eta
Oñatin alkohol-
kontrol
boluntarioak egin
dituzte"

jarri zituzten. Batek baino gehiagok susto ederra hartuko zuen emaitza ikusterakoa! Gero, autoa hartu ez bazuen, behintzat, gaitzerdi.

Aretxabaletan, baserritar jantzita ibili ziren zapatuan. Horrela, **Ibarrara**, UDAREN partidua ikustera joan zenik ere badago; tartean, **Jokin Antxia** UDako presidentea. Partidua domekatik zapatuta pasatu zuten aretxabaletarrek, eta, emaitza behintzat ona izan zen. Jaiarekin jarraitzeko aproposa.

Jaiak aipatu, eta ezin utzi aipatu gabe datorren astean izango direnak: Arrasaten **Maritxu Kajoi**, Oñatin **Herri Eguna** eta **Errosarixo Bixamona** eta Bergaran **Kilometroak**. Egongo ote da laurak jarraian ospatuko duenik?

hildakoak

- **Periko Arriola Villar**. Arrasaten, irailaren 28an. 56 urte.
- **Gabina Elorza Telleria**. Oñatin, irailaren 28an. 100 urte.
- **Carlos Beitia Beltran de Heredia**. Arrasaten, irailaren 29an. 52 urte.

asteburuko albuma



San Migelak Garagartzan. Egubakoitzeko hotzari aurre egin eta gero zapatu eta domekan eguraldia ez ezik giroa ere oso ona izan da Garagartzan jailetako antolatzaileen esanetan. Jende asko gerturatu da buzkantzen usainean eta 250 kilotik gora saldu dituzte. Umeek jolasekin eta Gorritiren animaliekin gozatu dute batik bat eta Txikitxukoen dantzak ikusten ere izan da jenderik. Bestalde, argazki zaharrei begira ibili diren auzotarrek ere ongi pasatu dute.



Espainiak Itzuliko porra. Arrasateko Monte tabernan egin zuten Xantini Peñak Espainiako Txirrindulari Itzulirako antolatutako porraren sari banaketa. Arrasateko Karkaba elkarteak **Gordoa** taldearen zerrendak jaso zuen sari nagusia (7.332 euro). Bigarren saria (4.532 euro) Bergarako **Bajitos** taldearendako izan da. Partehartze errekorra hautsi dute oraingoan, 611 izan baitira parte hartu dutenak. Saritan 17.065 euro banatu dituzte guztira.

Angiozarko jaiak. Auzotarren partehartzea izan da azpimarragarria Angiozarko San Migel jailetan. Danborradan ume zein nagusiek hartu zuten parte baita zapatu gaueko afarian ere. Saiheski nahikoa jan ostean, festa goizaldera arte luzatu zuten auzotarrek eta jai girora joandakoek dantzan. Domekan zeruratu zuten San Migelen irudia eta orain zain egon beharko dute ea nora arteko hegaldia egiten duen. Bestalde, Angiozartik jakinarazi digute jailetan egitekoak ziren Angiozar bailarako batzarraren aldarrikapena eta auzo alkatearen kargu hartzea zein berri duen saloiaren inaugurazioa atzeratu egingo dituztela eta datorren urriaren 21ean, domeka izango dela. Ohiturari jarraituz elizpean egingo dute ekitaldia.



Gaztetxearen jaiak. Elgetako gaztetxean lapurreta izan zen eta galerei aurre egiteko antolatutako zozketan herritarrek emandako laguntza eskertzeko jaiak egin zuten zapatuan. Giro ona izan zen egunean barrena. Eguerdian hasita poteoa, bazkaria, jokoak eta *play-back*-a izan ziren. Ondoren, pilota partidua jokatu zuten lau elgetarrek eta jaiak borobiltzeko Matx eta Ane Elortzak jardun zuten gaztetxean; azken honek estreinako emanaldia egin zuen gainera.

PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:
astelehena@goiena.com

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:


943 25 05 01

Eskelaren prezioa: 87 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100 euro**. **GOIENKARIA: astero, 45.000 irakurle.**



ARRASATE
Maddi Etxagibel Ruidiaz
Irailaren 22an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.



OÑATI
Ekhiñe Ugarte
Irailaren 24an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat Joane eta Josebaren partetik.



ARRASATE
Ilargi Ortega Arrieta
Irailaren 25ean, urtebete. Zorionak xorgiña eta txokolatezko patxo mordoa Bidasoa-Leintzeko gutarkideon partetik. Aurrera bolie!



BERGARA
Garazi Marzo
Irailaren 26an, 8 urte. Zorionak etxekoan partetik.



ARRASATE
Josune Garai
Irailaren 27an, urtebetetzea. Zorionak guapaaaa!



ARETXABALETA
Eki Balantzategi
Irailaren 27an, urtebetetzea. Zorionak eta patxo handi-haundi bat etxekoan partetik.




BERGARA
Irati Sasieta
Zorionak Tae! Eguna ondo pasau eta erregalo asko jaso zenituelakoan, patxo handi bat guapisima. Arriren partetik.




OÑATI
Ane Pelayo
Irailaren 28an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi-haundi bat etxeko guztien partetik.




ARRASATE
Maite Casas
Irailaren 28an, 23 urte. Zorionak koardrilakoan eta etxekoan partetik!




ARRASATE
Iزارo Herboso Madina
Irailaren 29an, urtebete. Zorionak Iزارo familia guztien partetik. Patxo eta besarkada gigante bat.



ELGETA
Ainara Belamendia
Irailaren 29an, 8 urte. Zorionak etxekoan partetik.



ARAMAIO
Iñaki Molero
Irailaren 29an, 6 urte. Zorionak etxekoan eta familiakoan partetik!




ARRASATE
Oier Abarrategi Altuna
Irailaren 29an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



BERGARA
Nerea Aginagalde
Irailaren 30ean, 9 urte. Zorionak etxekoan partetik.



ARRASATE
Hamid Sanchez Karbal
Urriaren 1ean, 6 urte. Zorionak aita, anaia, tia Naima, lehengusu eta bereziki Didoren partetik.



ARETXABALETA
Txaro Uriarte
Urriaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak amama, zure hiru biloben partetik: Pello, Ibai eta Maren. Mila muxu denon partetik.



ARETXABALETA
Manex Beltran de Heredia
Urriaren 1ean, 5 urte. Deabrutxoek ere ospatzen dituzte urtebetetzeak? Zorionak! Alaitz, Eñaut eta Monika.



BERGARA
Ainhoa Ugarte Gabilondo
Urriaren 1ean, 8 urte. Zorionak guapa! Etxekoan partetik.



ESKORRIATZA
Agurtzane Gainzarain
Urriaren 2an, urtebetetzea. Zorionak lankideen partetik!



ARRASATE
Olatz Legarda
Urriaren 2an, 13 urte. Zorionak etxekoan partetik!




ARETXABALETA
Iker Urtaza Urzelai
Urriaren 2an, 2 urte. Etxekoan eta bereziki Naroaren partetik, zorionak!



ARRASATE
Andrea Dapena
Urriaren 2an, 10 urte. Zorionak etxekoan partetik!



ARETXABALETA
Eñaut Zumarraga
Urriaren 3an, urte-txo bat. Patxo potzolo bat aitatxo, amatxo, Oier eta Enaran partetik. Muxu gorri!



BERGARA
Aitor Zubiaga
Urriaren 3an, urtebetetzea. Zorionak gizon! la Maritxutan formal-formal etxeratzen zan. Idoia.



OÑATI
Rosario Aiestui Beitia
Urriaren 3an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako! Ondo pasau eguna eta laztan bat etxekoan partetik.




BERGARA
Jennifer Caballero
Urriaren 4an, 6 urte. Zorionak maite zaitugunon partetik.



BERGARA
Zori Arregi
Urriaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak eta muxu bat bixigie jateko prest dauden partetik.



ARRASATE
Balbina Mondragon
Urriaren 5ean, urteak beteko dituelako zorionak eta urte askotarako. Familiaren partetik.



ARRASATE
Leticia Otxoa
Urriaren 5ean, 16 urte. Zorionak eta ondo pasau Maritxu Kajoi egunian. Etxekoak.



ARRASATE
Jone Zubizarreta
Urriaren 6an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.




OÑATI
Rosa Markuleta
Urriaren 7an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu bat bixigie jateko prest dauden partetik.



ARRASATE
Julian Zubizarreta
Urriaren 7an urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako. Muxu handi bat etxekoan partetik.



ARRASATE
Oroitz Aginagalde
Urriaren 8an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu bat bixigie jateko prest dauden partetik.



BABESLEA



IKUSI
MAKUSI

Umeen
paradisua



Txerra Bolinaga > RIPEko bateria jotzaile ohia

"Pilotalekuetako giroa asko gustatzen zait"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Txerra Bolinaga ezaguna da RIP taldeko bateria jotzailea izateagatik. Aspaldian bizileku duen Gasteizen, berriz, Hiesaren kontrako komisioan, alde zaharraren, gaztetxearen eta Hala Bedi irratiairen aldeko lanarengatik da ezaguna.

Deitzen al zaitu Jose Ramon norbaitek?

Gaur egun inork; mundu guztiak Txerra deitzen nau. Bada salbuespen bat: ama. Berak Jose deitzen dit, eta oso arraroa egiten zait. Ahaztuta daukat Jose Ramon izena.

San Viatorren ikasi zenuen, eta fraideen hezkuntza jaso zenuen. Gerokoa ikusita, gus-tura ibili zinen han?

Ez. Irakaskuntza zentsuratzaila zen: zigorrak... Oso esperientzia txarra izan zen, nahiz eta han lagun onak egin. Ordutik erlijioek atzera egiten didate. Handik Institutura jo nuen, eta hura, alderatuta, askatasuna zen, ez gintuen inork kontrolatzen... Han hasi zen apur bat neurriga-bekeria (barreak)

Eskiatzea pijo da?

(Barreak). Pijo asko daude, baina jende jatorra ere bai. Aspalditik daukat zaletasun hori eta niretzat pasioa da. RIPen garaian ere joaten ginen, batzutan talde osoa. Hala ere, Portu ez zen horren oso zalea.

Urte asko igaro dira gay zarella gizarteratu zenuenetik. Zaila izan zen?

Nik betidanik nekien gay nintzela, baina zailena izan zen nik neuk onartzea. Horren ostean, ez naiz kikildu. Gainera, nire fami-

lian oso ondo hartu zuten. Ez noa horren ikurrarekin, baina gaia irteten bada ez dut ezkututzen. Gizartea asko garatu da, baina oraindik herrietan zailagoa da zure sexualitatea askatasunez bizi izatea.

Domekero Arrasatera etortzen zara. Promesaren bat da?

Ez (barreak). Azkeneko lau urteotan aspaldiko lagun batzuekin elkartzen naiz palan jolasteko, bezperan parranda egin arren.

Oso pilota zalea zara, ezta?

Bai, musika moduan pilota ere familiatik dator. Aitak pilotalekuetara eramaten gintuen eta osaba Zurdo Etxebarría pilotari ezaguna zen. Partiduak telebistatik zein pilotalekuetan bertan ikusten ditut. Gustuko dut pilotalekuko giroa.

Amak gustuko ditu zure musika taldeak?

Orain onartzen du eta harro dagoela ere esango nuke, baina lehen gure bizimodu basatia ez zuen gustuko. Hala ere, musika eta hitzak ez ditu gustuko.




PALA Domekero joaten da Txerra Arrasatera palan jokatzen.

IKER BARANDIARAN

www.goiena.net

Oraingo domekan, joango zara Aranzadi Ikastolaren alde egingo duten kilometroak jaira?



biharamuna

Marijo Deogracias

'Susto o muerte'

Zelako aztorameneko astea! Eguenean Zinemaldian Lou Reeden filmea estreinatzen zela eta, bere baxu jotzaile Fernando Saundersen sms bidez gonbidapena bidali zidan. Nik, baina, ezetz: goizeko 6etan jaiki beharra nuela Ibarretxeren iragarpeneko plenora joateko. Gasteizen ere, beste era batekoak, baina izar dezenterekin topatu nintzen. Patxi Zabaletarekin eskaileretan gora Fernando Barrenarekin gurutzatu ginen; ez zen agur oso beroa izan, seguruenik goiz samar zelako. Xabier Lapitz ere agurtu nuen, baina uste dut ez zela nirekin akordatu; eta hori, bere aginduetara bekadun egon nintzen azke-



neko egunean, irratsaio amaieran "gracias, Marijo Deogracias" grazia egin zuela! Barkatuko diot; izan ere, Ibarretxeren iragarpenaren ondotik izan zen, eta asko ziren zer esan jakin barik geratu zirenak. Horieta bat Pastor sozialista izan zen, Egibar, Ezenarro eta EITBko zuzendari Andoni Ortuzarren aurrean bota zuen-eta: "ta ni sinistuta Mesias bakarra zeuala!" (gero hedabideetan esan zuen Laudion beste Mesias bat zegoenik ez zekiela). Baina, Victoria Pregoren artikulua izenburuarekin geratuko naiz: "Ibarretxek aukera egiteko eskatu digu: susto o muerte". Espainian horrela ulertu ote dute?

eguraldia



MINIMOA

+16

MAXIMOA

+24

Erdi mailako hodeiez estalita egongo da zerua, eta arratsalde partean, gainera, baliteke zaparradaren bat botatzea.

www.euskalmet.euskadi.net

Edalontzi berrerabilgarriak

Aurten edalontzi berrerabilgarriak erabiliko ditugu. Horrela, askoz ere hondakin gutxiago sortuko dugu. Edalontzia jasotzeko, euro bateko txarteltxoa erosi beharko duzu, berme moduan. Nahi duzuenean txarteltxo hori itzuli eta euroa bereskuratuko duzu horretarako egokitutako ondoko diru truke puntuetan: 1., 3. eta 5. gunetan.

Guztion artean zainduko dugu ingurumena



ARGI DAUKAGU

KILOMETROAK 07
Aranzadi Ikastola - Bergara - Urriak 7
www.kilometroak.net

